

Junior mailako txirrindulari lasterketea egingo da San Kristobalen

15. orrialdea

Indonesia eta Mexikoko taldeak Folklore Bizian jaialdian

Galdakaoko Andra Mari Eusko Dantzari Taldeak, Indonesiako KTF Radha Sarisha folklore taldeak eta Mexikoko Folkloriko Viva Chihuahua taldeak jantza erakustaldia egingo dabe Areatzako plazan, garagarriaren 24an, 20:30ean, Folklore Bizian jaialdian. 16. orrialdea



Lemoako Udalak aurkeztu ditu 2023-2024rako ikastaroak

16. orrialdea

San Inazio jaiak ospatuko ditue Lemoan hile amaieran

Su Ta Gar, Zelanda, Beranduegi eta Los Zopilotes Txirriaos taldeek ipiniko deutsee musikea saninazioetako gauet. Lemoak bost egunetako jai egitaraua prestatu dau, egunak eta gauak beteteko. Jaiet hasikerea 50 urte bete dituan Ganzabal Mendi Taldeak emongo deutse, garagarriaren 28an, 19:00etan, baina ordurako lemoaztarrak jai giroan murgilduta egongo dira, bezperan herri afaria dago-ta.

Jaietan, kontzertuak, erromeriak, gastronomia lehiaketak, playback-a, ikuskizuna eta artisautza azokea, besteak beste be egongo dira, edade guztietako jentek ondo pasau dagian. 5. orrialdea



Dimako eta Igorreko alkate barriei alkarrizketak



Bagilaren 17an, Josu Gorospek (EAJ), Jose Mari Atutxari (EH Bildu) pasau eutsan Dimako aginte makilea; Igorren osterera, Illart Gumuziok (EH Bildu), Olatz Urkizari (EAJ). Diman eta Igorren ordutik alkate barriak diran Atutxa eta Urkizagaz egon da BEGITU berbetan. 8. eta 9. orrialdeak

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Mediterraneoan uda gogorra aurreikusten dabe Aita Marikoek

Salvamento Maritimo Humanitarioko GKEren ontzia da Aita Mari, Mediterraneoan erreskatean ibiltzen dana. Jardunerako traba burokratiko, eskoi muturreko zein gobernu progresista, Afrikako diktadura eta petroleoaren gerren aurrean, uda gogorra izango dala uste dabe. 12 eta 13. orrialdeak

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Gorbeialdek turismoa bultzatu eta ekintzailtzea sarituko dau

Bizkaiko Landa Garapenerako Elkarteek, tartean Gorbeialdek, euren Bizkaimendi Federakuntzaren bidez, landa eremuetako ekintzaileei laguntzeko lehiaketa bat abiatu dabe. Next Generation Europako dirulaguntzakaz turismo iraunkorra be bultzatu gura dau Gorbeialdek. 7. orrialdea

LEMOA

Memoriaren Oihartzunak-ek 1936ko gerrea eta gerraostea gogoratuko ditu

Iker Vazquez artista eta iker-tzaileak irabazi eban "Oroitzeak dakarren askatasunaz" izenpean, Udalak Arte Ederretako Fakultadeagaz antolatutako lehiaketea. Lan irabazleak memoriaren gaineko hausnarketa bat proposatzen dau, lau interbenzino artistikoren bidez, grekoen elementu klasikoakaz lotzean diranak. Bizitzaren begiralekua (lurra), Memoriaren parkea (airea), Oroimenaren aterpea (sua, argia) eta Ahotzen bidea (ura) dira artelanak eta heritik pasetan dan Lemoatxa 1937 ibilbidean ikusi daitezke. 10. eta 11. orrialdeak

EKIN

LAN PUBLIKOAK
UR ETA SANEAMENTSU SAREAK
BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
PABILOIAK ETA URBANIZAZINOAK

94 631 72 57 Igorre (Bizkaia)
eraiketak@construccioneseakin.com

RENAULT

TALLERES ELEZARRE
Lehendakari Agirre, 22 · 94 631 56 34 · IGORRE
elezarre@telefonica.net

Literatura txokoa

HIJOS DE LA ADVERSIDAD

Beti erakarri nau giza gorputzak. Natura gara eta natura beti izango da gure buru errazoiduna baino inteligenteagoa. Gorputza sano inteligentea da, guk uste doguna baino gehiago. Osasuna daukagun gauzarik garrantzitsuen dala esaten deuskue beti nagusiek. Gazte sentiduten naz oindino baina erabat ados nago. Izan be bizimodu osasuntsua neukala uste eta gaixotu nintzan, konturatuteko denporarik euki barik.

Azken mendeetan asko aldatu da biziteko modua, baina gure geneak ez dira aldatu eta biziteko era honek zuzenean garoa gaixotasunerara.

Antonio Valenzuelak *Hijos de la adversidad* liburuan azalduten dauan moduan, gure espezieak planeta honetan daroan denpo-

rearen %99,6a, garai paleolitikoan egin dau. Zer esan gura dau honek? Gure geneak gure arbaso paleolitikoaren bardinak dirala, baina gu ez garenez bizi euren moduan, ez gagoz gure geneak behar daben bizitzagaz bat. Kobazulora bueltatu behar garala esan gura dau honek? Ez, inondik be ez. Baina asko daukagu egiteko gure gorputzaren (eta ingurumenaren) alde.

Ez dogu komodidadean eboluzio-nau, inkomodidadean baino. Gaur egun barriz, erosotasun guztiak eskura daukaguz: etxea urte osoan tenperatura bardinean, benetako gosea igarri orduko jatekoa eskura (ahora daroagun produktu horren kalidadea kontuan euki barik), asko jota egunean ordu bat edo bi mobiduten gara, lo be gero eta gixiagu.

Gaixotu egiten gara eta horrek harritu egiten gaitu. Eta behin gaixotuta, medikuak agindutako botika bat hartuta osatu gura dogu.

Antoniok dinoan moduan, gure arazoan konponketea ez da pastilla bat, biziteko era aldatutea baino.

Liburu honetan idazleak argi azalduten deusku nondik gatozen eta zer dan gure gorputzak behar dauana bizimodu osasuntsu bat eroateko. Ohitura aldaketa bat beharrezkoa da, lagunok. Ez da eroso ur hotzetan sartutea, hasikeran ez da erraza egunean bost janari egite-tik egun batzuetan bitan jatea, baina nork asmatu dau bost edo sei jator-du egin behar doguzala bizirik mantenduteko? Emon buruari apur bat eta pentsatu ia gure aita-amamek hainbeste otordu egiten ebezan. Nireak behintzat ez eta aita 100 urtegar joan zan, azkenerarte harria baino gogorrago mantenduta.

Bada ba ordua gure osasuna gure esku hartuteko. Gure erloju biologikoa guztiz zoraturta daukagu. Hasi gaitazan behintzat goizean goiz kanpoko argitan egon eta behin ilundukeran mobilak eta beste pantalla batzuk alde batera ixten. Bai bada-ki, ez da erraza, engantxuta gagoz sano. Baina lagun, Valenzuelak dinoan moduan, zu zara zure bizitzako protagonista. Zuk ez badozu egiten inok ez dau egingo zugaitik.

Nik argi daukat. Bizi ohitura batzuk aldatu dodaz eta beste batzuk bidean dagoz, eta ez naz kobazulora joan, oindino.

Bizimodu osasuntsu eta oreka-tua eroan gura badozu eta prest bazagoz aldaketa txiki batzuk egiteko hori holan izan daiten, zoaz herriko liburudendara eta eskatu egizu altxor hau, zure geneak eskertuko deusue. Bizimodu on!

Nerea Goioaga



Antonio Valenzuela

Hijos de la adversidad

Alienta editorial, 2022

288 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Garagarilaren 3tik 9ra

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7
Tel.: 94 631 73 11 eta 629 463 048

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Garagarilaren 10etik 16ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Garagarilaren 17tik 23ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

Garagarilaren 24tik 30era

Andrea Lavin Abadia. Lemoa. Atutxa Saillburua 1
Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Zoco Robles Miren Nekane. Urbi 15. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 600 74 63

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

AUM 94 631 17 17 / *mankomunitatea.*

arratia@bizkaia.org

Gorbeialde Landa

Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / *gorbeialde@gorbeialdea.com*

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

IKE 94 673 62 51 / *kulturetxea@igorre.net*

Euskotren 94 433 33 33 / *euskotren.eus*

Areatzako Notarioria 94 673 92 26

Errota Fundazioa

688 854 543 / *info@erota.eus*

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / *www.arratiakomusikaeskola.eus*

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik

22:15era ordu. Jaiegunean ordu

07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunean: Lehenengo

05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua

22:00etan. Zapatuetan: Lehenengo

05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunean: 07:45etik 21:45era ordu.

3911 Linea. Bilbo-Galdakoa-Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunean: 07:00etatik

22:00etara ordu. Zapatu eta domeketan

Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunean: 06:45etik 20:45era

orduro.

Durangotik. Lanegunean: 07:10etik

21:10era ordu. Zapatuetan: 06:30etik

21:30era ordu. Jaiegunean: 07:30etik

21:30era ordu.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunean: 06:30etik 22:30era

orduro. Jaiegunean: 07:30etik 22:30era

orduro.

Eibartik. Lanegunean: 06:00etatik

21:00etara ordu. Zapatuetan: 06:20tik

21:20ra ordu.

Jaiegunean: 07:20tik 21:20era ordu.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunean,

Otxandio: 06:45etik 20:45era ordu.

Ubidea: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Jaiegunean: 08:45etik 20:45era bi ordu

behin.

* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten

diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era ordu.

Jaiegunean: 08:55etik 20:55era ordu.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)

Bilbotik. Lanegunean: 07:00etatik

21:00etara ordu. Zapatu eta jaiegunean ez

dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunean: 07:00etan lehena,

eta 08:15etik 21:15era ordu. Zapatu eta

jaiegunean ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00;

11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05,

14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan:

06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Artea. Lanegun eta zapatuetan:

13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorrera. Lanegun eta

zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunean:

08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriagatik Zeberiora. Jaiegunean:

10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunean: Ubidekoak 09:15ean urteten

dau eta Otxandiokoak 16:00etan. Zapatuetan:

Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik.

Jaiegunean: Ubidekoak 10:00etan urteten

dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunean: Ubidekoak 09:00etan urteten

dau Gasteizetik eta Otxandiokoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urteten

dau Gasteizetik.

Jaiegunean: Ubidekoak 16:30ean urteten dau

Gasteizetik.

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** *begitu@begitu.eus*. **Webgunea:** *www.begitu.eus*. **Zuzendaria eta publizitate arduraduna:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** *inigoirua@begitu.eus*. **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** *beazpiri@begitu.eus*. **Erredakzinoa:** Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. **Webgunearen arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** *asierabrisketa@begitu.eus*. **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga. **Banaketea:** Garbikuzi enpresa (Dima, Ubide, Zeanuri eta Zeberio), Asier Abrisketa (Igorre), Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa) eta Asier Jugo (Arantzazu, Areatza eta Artea). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus **Instagram:** @begitu.eus



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearenak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikatu, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatzu eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatuzeko.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ZEURE BERBEA

"Soilik baietz da baietz" legea

"Soilik baietz da baietz" legearen ondoriozko zigorren beherapenek eta kartzelatik ateratzeek legearen kontra ipini dabe eretxi publikoa. Legearen kontrako erreakzioa ezin zan aurrekusi eta albiste guztiak erasotzaileen zigorrak murriztu eta kartzelatik aterateari buruzkoak izan dira. Honek, eretxi publikoa, sexu-indarkeria sufriduten daben pertsonen erantzun integrala emon gura deuten lege baten kontra ipini dau.

Dana dala, podere judizialak indarkeria matxisteagaz lotutako legeen aurrean euki dauan erreakzioa ez da barria; genero indarkeriari buruzko 2004ko Legeagaz be gertatu zan eta. Sasoi haretan, 187 epailek esan eben araua Konstituzinoaren kontrakoa zala, baina ez eben lortu Legea gelditu arazotea, oingo honetan gertatu dan moduan, Victoria Rosellek, genero-indarkeriarako Gobernuaren ordezkariak, "Justizia feminista IV. Soilik baietz da baietz" EHuko Udako ikastaroan adierazotakoaren arabera.

Kasu honetan, zigorrak arintzeak zerikusia dauka epaileek legea behar ez bezala apliketeagaz. Hau da, podere judizialak podere legegilea alde batera itxi dau. Adibide moduan, sedizino delituaren erreforma penala daukagu. Orduan zigorrak arindu ziran eta Auzitegi Gorenak zigorrak murriztea galarazo eban. Baina "Soilik baietz da baietz" legean, Auzitegi Gorenak berak, arintzeak apliketea baimendu dau. Justizia patriarkalaren adibide argia.

Lege honek onarpena ipinten dau erdigunean.

Arau honek paradigma aldaketa handia ekarri dau Istanbulen Hitzarmentaren ildotik, "onarpena" (eta ez indarkeria) erdigunean ipinten dau-lako, "ez da ez" izatetik "bai da bai" izatera pasetan da, bardinen arteko "gura" izateagaz zerikusia daukana. Erasotzailearengan ipinten dau arretea, harek ziurtatu behar daualako adostasuna egon dala.

Egungo datuen arabera, erasoan %8 eta bortxaketen %11 bakarrik salatzen dira. Askotan, erasoak jasan dabenak hainbat zentrotatik pasau behar izaten dira, eta horrek zaildu egiten dau salaketa prozesua. Horregaitik lege honetan diziplina anitzeko krisi zentroak sortzea aurrekusi da, kalte egin barik, epaitu barik, galdetu barik entzuteko, eta baliabide espezializaduetara bideratzen da erasotua, han dagozalako zelan egin behar dan dakien pertsonak. Areta 24 ordu eta 7 egun dira astean, eta ez da beharrezkoa salaketea ipintea. Zentro horreek 1970eko hamarkadan hasi ziran AEBn, hasikeran, mobimentu feministearen kontua ziran, eta gero instituzionalizetan joan ziran, Nerea Barjola UPV/EHUko feminismoetan eta generoan doktoreak adierazo eban.

Araudi honek, duda barik, oharkabean pasau diran aurrerapen asko ditu, eta horreen artean dagoz prestakuntzea, konponketea, delitu barriak tipifiketea, -kaleko jazarpenera eta sexu-educia birbidaltzea, esate baterako-, doBako laguntza juridikoa emotea, genero bardintasunean eta hezkuntza afektibo-sexualean derrigorrezko hezkuntza, Hezkuntza etapa guztietan, baita irakaskuntza eta osasun eta justizia-arloetako unibersidadeko titulazionetan be.

IZASKUN ATUTXA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

ERETXIA

Fake news

Bizi garan sasoi honetan, fake newsak gure gizar-tean daukien eraginak daborduko inor ez dau harritzen, batez be gure hausnarketa eta ebatzi hartze prozesuak moldatzeko daukien gaitasuna. Horren aurrean, Hezkuntza Zientzietan doktore dan batek jakingo dauenez, ezinbestekoa da informazio iturri desbardinak kontrastatu eta honeen fidagarritasuna aztertzea. Egin daigun ariketa praktiko bat. 2023ko bagilaren 15ean BEGITU aldizkarian argitaratutako "Zerbitzu publikoen pribatizazioak ekarri leikena"-ren hariara ondorengo adierazo gura dogu:

2021eko zemendian, Hezkuntza Sailak, Euskal Hezkuntza sistemearen orientazio akademikoa eta profesionala hobetuteko azterlan bat egitearen premia ikusi eban eta esleipen publiko-eror eban egiteko hau. Lan hau EDE fundazioari esleitu jakon. Azterlan horren lehen zeregina diagnosi bat egitea izan zan, EAEko orientazio zerbitzuaren indarguneak eta ahuleziak detektetako. Diagnostika egiteko Hezkuntza sailak, EAEko DBHko ikastetxeetara orientazio zerbitzua ebaluetako galdetegiak luzatu ebazan, zuzendaritza taldeek ikasle/famili eta irakasleei berbidaltzeko. Arratia Institutuaren kasuan galdetegi 2022ko zezeilaren 3an agindu jakien ikasleei. 2022ko bagilean publikatu ziran azterlan horren emaitzak; "EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HEZKUNTZA-ORIENTAZIORAKO SISTEMA: ORIENTAZIO AKADEMIKO ETA PROFESIONALA HOBETZEKO AZTERKETA DIAGNOSTIKOA ETA ORIENTABI-DEAK". Dokumentuaren pasarte baten honakoa islatzen da; "Familiek ez dute nahi adina parte hartzen beren seme-alaben orientazio akademiko eta profesionalerako prozesuan. Hori dela eta, familien %57,1 ez daude oso gustura edo batere gustura gaur egun orientazio-prozesuan duten parte-hartzearekin, eta ia erdiek ez dute ezagutzen ikastetxeko orientazio-plana. Familielikiko harremana hobetzeak ikasleei buruzko informazioa eskuratzea eta arreta pertsonalizatzea hobe lezake". Honeguz, agirian geratzen da orientazio akademikoaren arloagaz lotutako beharrak, asetu barik egozala EAEko ikastetxeetan. Eta Arratia BHIn? Agian interesgarria litzateke ikasle eta familien eretxiak ezetutea.

Honen hariara, Foru Aldundiko Bizkaia Gaztea 2030 proiektutik diru boltsa bat eratu zan, udalek eta mankomunitateak erabili ahal izateko, edozein biztanleri

J.B. EGUSKITZA MEABE IPI-KO:

Iratxe Kareaga (BAT taldeko arduradun eta Ongizate

Emozionaleko koordinatzailea)

Amaia Zelaia (BAT taldeko kidea eta DBHko koordinatzailea)

Esti Alonso (BAT taldekidea eta LHko Ikasketa Burua)

Juanjo Navero (BAT taldekidea eta DBHko Orientatzailea)

ARRATIA BHI-KO ZUZENDARITZEA ETA ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEKO

Andere Ortuzar presidentea

orientazio akademiko eta laborala eskaintzeko helburuagaz. Arratiako Udalen Mankomunitetik, aukera hau ikusiz, Berritzegunera jo eben, proposamen hau mahai gainean jarriz eta Arratian inplementetako aukerea aztertzeke. Berritzeguneko aholkulariak, ikastetxeko orientatzaileen eta zuzendaritzen ebatzia dala esan eutsen eta hortaz bilera bateratu bat egitea proposatu zan. 2022ko urri lehenengoa eta abendua bitartean hainbat lan bilera egin ziran Arratia Institutuko eta Lemoako IPIko orientatzaile, mankomunitate eta Berritzeguneko aholkularia partaide zirala. Ikastetxeek euren ikasle/famili beharrianak asetuko ebezan proposamenak bidali eutsiezan mankomunitateari. Honek, Gardabera enpreseari esleitu eutsan zerbitzua. Beraz, mankomunitateak ikasleen orientazioa hobetuteko asmoz, eretxi artikulua horren arabera, "xahutu"tako dirua, hain zuzen, orientazio zerbitzua hobetzeri bideratutako dirulaguntza batetik etorri zan.

Arratia Institutuko orientazio mintegi buruak bere eretxi artikuluan dinonaren hariara: "Garrantzitsua da azpimarratzea institutuko zuzendaritzak zerbitzu hori onartu ebalako orientazio arduradunagaz inongo komu-

nikaziorik mantenidu barik eta, ondorioz, haren adostasun barik". Baietzapen hau errealidadeagaz bat ez datorrela adierazo gura dogu. Batetik, honezkero argi geratu dan lez, dirulaguntza jaso eta egitasmoa martxan ipintea, lehen hiruhilabetean Arratia BHIn egozan hiru orientatzaileak eta Lemoako IPIko orientatzaileagaz partekatutako ebatzia izan zalako. Eta, bestetik, orientazio "arduradunari" Meet bidez jakinarazoteaz gainera, 2022ko abenduaren 22an proiektu honen barri emon jakolako email bidez, ikastetxeak, hori egiteko inongo derrigortasunik izan ez arren.

Azterlanaren emaitzei barriro be erreparauz, honakoa islatuta dago; "6. ERRONKA. Komunitateko hainbat GIZARTE-ERAGILEREN parte-hartzea indartzea, orientazio akademiko eta profesionalerako prozesua sendotzeko. Komenigarria litzateke orientazio akademiko eta profesionala sustatzea Bigarren Hezkuntzan eta derrigorrezkoaren ondokoan, orientazio profesionalerako batzordeak sortzearen bidez. Hezkuntza-komunitateko kideek (irakasleak, ikasleak, familiak, zuzendaritza-taldea eta abar) eta inguruko interes-taldeek (orientazio profesionalen lan egiten duten eragile komunitarioak, elkarteak, enpresak eta abar) osatuko dituzte batzorde horiek". Ikasleen ondoizate emozionalari leku guztietatik, modu integraduan eusteko erantzukizuna izanik, ez al dau ikastetxeko zuzendaritza taldeak eta orientazio mintegiak aurrekoagaz bat egin?

Eretxi artikulua baten oinarria sendoa eta koherentea izan behar da. Zentzu honetan, harriztekoa da bagilaren 15eko eretxi artikulua horretan pribatizazioaren eragin kaltegarriak azpimarratzea, baina, aldi berean, Orientazio Mintegi beretik, ikasleentzako hainbat tailer eta ekintza enpresa pribaduen bidez bideratzea, modu ordezkatzailean gainera eta ez osagarrian. Adibidez, Ortzadar, Geuz, Emoki, Urtxintxa... enpresen bitartez.

Diskurso populistek, egoek, interes personalek, eztabaida benetan garrantzitsua danetik desbideratzen dabe. Nerabeen beharrianak erdigunean ipinteko unea da, eta ikastetxe legez, gure lehentasuna behar honeei eskura daukaguzan baliabide guztiakaz erantzutea da, administrazio publiko desbardinakaz alkarlanean, modu koordinatuan eta ikuspegi global bateagaz. Bide honetan izan dogu Arratiako Udalen Mankomunitatea bidelagun. Eta etorkizunean be, hala izatea espero dogu. Asko dago jokoan eta erronka ez da makala. Nera-beak itzaroten dabiz. *Think big, act small.*

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (XXVIII). Kale berbakunea sustatu guran

LAGUN BIREN ARTEKO ALKARRIZKETEAK, MUTILAK BIAK:

- Hi gezun baten uda hasten **dok!!**
- San Juan **dokela** eta egin beharko **juk** zeozer **eztok?**
- Ba **eztok** txarra!! Kuadrillea batu eta baserrian egingo **juk** sua!!
- Eta egurra nondik aterako **juk?**
- Egon **hai** apitz!! Hori nire kontura!!
- Urdai apur bat eta sardina batzuk be erre beharko **juzek eztok?**
- Bai!! Hori be egia **dok!!** Tripea hutsik **ezkozak** lotuko!!
- Itzel!! Oin musikea baino **eztok** falta!!
- Pendrivea eta anplia eroanda eginda **jak** dana!!

LUMATUTEN

ARANTZA
ETXEBARRIABete jat burua,
ama

Askotan artega paretan naz ez dodazalako gertaera batzuk edo data batzuk gogoratzen. Inguruko jenteak esaten deust harako gorabehera urlia egunetan, urlia hiletan eta urlia urtean pasau zala. Edo ahizteak kontetan deust txikitan, harako egunean, ez dakit nora joan ginala ez dakit zertan.

Baina gero burura etorten jat amak 40 urte bete ebazan eguna, zertaz berba egin genduan, non gengozan, zelan sentidu zan bera. Eta gogora etorten jat aitak itzarrik euki eban azken amesetea, eta desio hori kontau euskunean gelan egozan loreen usaina, zelan sartzean zan argia leihotik egun haretan.

Gogoan daukadaz dardarka ipini ninduan lehen mosua, institutuan Cupido hegodunari buruz berba egin euskuen eguna, urioletako estukurearen erdian amamaren ahateen poza, aitatagaz atera neban azkenengo argazkia,

ugazabandrea ez egoala asto gainean ibiltzen ginanekoa. Akorduan daukat nire alabak jaió ziran egunetako eguraldia, ospitaleko gelak, umeen arpegia lehenengo zikusikeran sentidu nebana.

Azken baten, gauza askogaz akordetan naz, eta beste askogaz ez. Eta ni neu konsolau egiten naz ikusita beste persona batzuei be beste horrenbeste pasetan jakielá. Ni baino nagusiagoak, nire edadekoak eta ni baino gazteagoak izan arren. Nire alabeak be hauxe esan deust aurreko egunean, bagileko aldasgora bete-betea: "Bete jat burua, ama".

Nire buruhausteetako bat danez aspalditik, dana dakian Googlei sokorruka hasi eta memoria selektiboari buruzko hainbat artikulu leidu dodaz. Bertan ikusi dodanak konbenzidu nau, lerrootan idatzita datorrena sinistea komenidu jatalako. Ez dot pentsau gura burua galtean nabilanik, edo burua beteta daukanik, edo gauzei merezidu daben inportantzia emoten ez deustedanik.

Nire buruan gomuta gazi-goza gehiago pilotu ahala, botiketan eta beste hainbat txokotan egoten diran roboten irudia etorri jat burura. Tekladuan agindu batzuk idatzi eta eskatutakoa atoan ekarten dabe zugana. Memoriagaz be beste horrenbeste pasetan dala esango neuke. Badoaz katingatzen puzzlearen pieza txikiak buruan, eta zer edo zer aktibetan danean etorten dira gugana.

Alabeari tranquil egoteko esango deustat. Asko falta jaku oindino gure memoria selektiboak gainezka egin dagian.

ZERTZEAN



MARTIN ORTEGA MURO

San Joan Bateatzailearen
ermitea, Egian

2023an Igorreko Udalak ateratako egutegiko bagileko irudia.

BEGI TXINDORRA

Urtero lez, BEGITUREN Argazki Lehiaketan parte hartu eta udan ateratako argazkiak, irakurle guztiakaz konpartiduten konbidatzen zaituegu. Irabazleentzat sariak egongo dira.

Argazki lehiaketaren oinarriak:

- 1.- Gaia: argazkiak 2023ko oporretan egindakoak izango dira.
- 2.- Lanen ezaugarriak: Aurkezten diran argazkiak, non, nok eta noz atera diran esan behar da. Gehienez 3 argazki bialdu ahal izango dira personako.
- 3.- Nora bialdu: Argazkiak argazkiak@begitu.eus helbidera bialdu behar dira.
- 4.- Aurkezteko epea: 2023ko garagarilaren 3tik urri lehenengoaren 25era arte aurkeztu daitezke argazkiok. Abuztua eta urri lehenengoko aldizkariaren zenbakietan argitaratuko dira batzuk. Dana dala, horrek ez dau esan gura argitaratutako horreek diranik irabazleak.
- 5.- Epaimahaia: BEGITUKO erredakzino taldeak osotuko dau.
- 6.- Epaia: Epaimahaia urri lehenengoaren bigarren hamabostaldian batuko da epaia emoteko eta urri bigarrenengan emongo da jakitera.
- 7.- Lehenengo saria: Persona birentzako astegoién bat Euskal Herriko landetxe baten. Sari gehiago egon daitezke, epaimahaiak egoki jo ezkeró.
- 8.- Oharra: Lehiaketa honetan parte hartzean dabenek honeek oinarriok onartuten dabezala esan gura dau.



Gorosti
LORAZAINTZA

Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

BEER & EDARIAK

Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17 Arkaitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24 Golder 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com

agoa
hagin klinikak

Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia

Bidebarri 1. behea
48140 Igorre - Bizkaia
T. 94 631 50 39
ikolagata Zerbaita 101
R.P.S. 31/06

ZEANURI

Jaietako Kartel Lehiaketara aukeztu daitezke lanak hilaren 12ra arte

Erredakzioa

2023ko Jaietako Kartel Txapelketan Zeanurikoek parte hartu ahal dabe, kategoria bitan: 14 urtera artekoa eta nagusia. Proiektu guztietan "Zeanuriko Andra Mari jaiak 2023, abuztuaren 12tik 16ra" testua derrigor agertu behar da. Garagarriaren 12ra arte bialdu daitezke lanak harrera@zeanuri.eus helbidera edo pape-rean udaletxera eroanda.

Aurkeztutako lanak, hilaren 13an eta 14an ikusgai egongo dira Udaleko pleno aretoan 18:00etatik 20:00etara. Epe eta leku horretan, zeanuriztarrek bozkatu ahal izango dabe gehien gustetan jakien kartela eta kategoria bakotxean boto gehien jaso dituana izango da irabazlea.

Sariak, umeentzako liburu eta jolasetarako kultura bonoa eta

nagusientzako euskal produktuen otzara bat izango dira. Lan irabazlea jaietako kartelean eta jai-egitarauaren azalean agertuko da.

Lan irabazlearen egile eskubi-deak Udalaren esku geratuko dira.

Oinarriak zeanuri.eus helbidean konsultatu daitezke.



LEMOA

Su Ta Gar eta Zeinkeren kontzertuak egongo dira jaietako zapatu gauean

Aurten mende erdia bete dauan Ganzabal Mendi Taldeak emongo deutse

hasikerea jaiei, hilaren 28an, arrastiko 19:00etan udaletxean. Hortik Elizondora joango dira kalejiran Mozorro Lehiaketan parte hartuko dabena buruhandi eta gaiteroakaz batera. Hortik aurrera, ondo pasetako jarduera ugarik osotuten dabe jaietako programea: kontzertuak, erromeriak, gastronomia lehiaketak, playbacka, ikuskizuna eta artisautza azoka, besteak beste.

Kontzertuei jagokienean, Zelanda eta Beranduegi taldeak egongo dira bariku gauean; Zeinke eta Su Ta Gar zapatuan, eta Pagasarri Ska All Stars eta Los Zopilotes Txirriaos, domekan.

Erredakzioa

Garagarriak 27, egunea

19:00etatik 20:00etara, Mozorro Lehiaketan parte hartzeako izen-emotea txosnagunean.

21:30ean, herri afaria txosnagunean.

Garagarriak 28, barikua

18:30ean, jaietako kartelen erakusketea udaletxeko plazan.

19:00etan, jai hasikerako txupina eta Jaietako Kartel Lehiaketako sari banaketea udaletxeko plazan. Ganzabal Mendi Taldeak emongo deutse hasikerea jaiei.

Ostean, kalejirean, mozorrotutako jentea, buruhandi eta gaiteroakaz, Elizondoraino. Han Mozorro Lehiaketako sari banaketea. 21:00etan, 18 urtetik beherakoentzako kuadrillen afaria kiroldegian.

23:30ean, kontzertua eta erromeria, Zelanda eta Beranduegi taldeak Elizondon.

Garagarriak 29, zapatua Kuadrilla Eguna

11:00etan, umeentzako jolas parkea eskolako patioan.

13:30ean, apar jaia eskolako patioan.

13:30ean, Paella, Tortilla eta Gissadu Lehiaketetako aurkezpena eskolako patioan. Ondoren herri bazkaria.

17:00etan, Elkartrukeko gazteek antolatutako tailerrak eta jolasak eskolako patioan.

17:00etan, jubiladu alkarteak antolatuta, Mus eta Briska Txapelketak jubiladuen tabernan.

17:00etatik 18:00etara, playbackean parte hartuteko izen-emotea jubiladuen tabernan.

22:00etan, ume eta nagusien Playback Lehiaketea Elizondon.

23:00etan, kontzertuak: Zeinke, Su Ta Gar eta dj Bull.

Goizaldean kopaua Elizondon.

02:30ean eta 05:00etan, Arratiako herrietara bueltetako autobusa Correos-etik.

Garagarriak 30, domekea Umeen Eguna

13:00etan, Tio Teronen semeak-en *Festamentua* ikuskizuna Elizondoko Kulturguneko plazan.

Arrastian ekintzak txosnagunean.

19:00etan, Eusko Labela daukan oilasko pintxo dastaketea txosnagunean. Jasotako dirua hego Euskal Herriko etxebizitza sindikatuen sarerako izango da.

22:00etan kontzertuak Elizondon: Pagasarri Ska All Stars, Los Zopilotes Txirriaos eta Junapu.

Garagarriak 31, astelehena San Inazio Eguna

11:30ean, XXV. Artisautza Azokea Atxeta taberna ondoko plazan.

12:00etan, mezea San Inazio base-lizan. Ostean Durundi Barri Dantza Taldeko ekitaldia San Inazio plazan.

12:00etatik 13:00etara, baserri-tar jantzita doazenei txartel banaketea plazan taloa eskuratzeko.

18:00etan, dj Kaktus Bihurriak gara San Inazio plazan.

19:00etan, Bola Txapelketea 18 urtetik beherakoentzat.

19:30ean, Bola Txapelketea 18 urtetik gorakoentzat.

Ondoren Garsu erre San Inazio plazan.



Igazko Lemoako jaietako irudi bi.

LEMOA

Bizkaiko Ardi Txakur Txapelketea Lemoan jokatu da

Erredakzioa

Garagarriaren 8an, 18:00etan izango da. Bertan zortzi txakur, zortzi artzainen agindupean, artaldea, artegira eroaten saiatuko dira. Pello Segurola, Mikel Aispurua eta Asier Dacosta dira txapelketako epaileak. Txapelketa honetan, Bizkaiko txakurrik abiletakoena lana ikusteko aukerea izango da.

Lehian izango dira Bitor Bengoetxea galdakaoztarra Izar txakurragaz; Inazio Irakulis eta Beltz txakurra Etxanon entrenetan dabena; JR Azkargorta, Bat izeneko txakurragaz; Markina-Xemeingo Igor Elordi eta Lagun; Izurtzako Juanjo Garate eta Tina txakurra; Jon Olibares Bizi-Joli txakurragaz; Mikel Pagazartundua Lay txaku-

rragaz eta "Alfon" Lagunegaz.

Txakurren lana

Artzain txakurren lehiaketea, artzain txakur batek, artzainaren agindupean artalde bat zaindu eta gidatzeko daukan abilitadea neurtzen dauan lehiaketa bat da. Ariketa bi egiten ditue txakurrek. Lehenengotik, artzainaren ondotik artaldera joaten da txakurra, banderatzoz markatutako bidetik. Gero, artaldea artzainaren aurrera eroan behar dau eta ardiak biribilaren barruan geratu behar dira. Amaitzeko, ardiak, zelaiaren alde bateko hesiaren tartetik pasatu behar dira. Bigarren ariketan, txakurak artaldea hartu eta erdian dagoan eskortan sartu behar ditu. Ardi danak sartu ezker, atera egin beharko ditu gero, eta txakurra barruan geratu.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Formatu txikiko jai ugarik animauko ditue auzoak hile osoan zehar

Garagarrila, auzuneetako jaietako sasoirik beteena da Arratian. Santomasak, sankristobalak, santamañeak, madalenak, santiagoak, santanak eta saninazioak ospatuko ditue izenpe horreetako ermiten inguruetan batzean diran auzoetan, eta auzootako bizilagunek jana eta jantzak konpartiduko dabez, bestek beste.

Erredakzioa

Garagarrilari hasikerea emon eutsen billaroztarrek Ospitalosten santomasak ospatuten hilaren 1ean egindako parrilladeagaz. Egun horretan, Igorren be hasi ziran sankristobalak ospatuten, mendi martxeagaz, baina San Kristobal eguna, hilaren 10ean da, eta jaietako egunik handienak, San Kristobal aurreko barikuzapatuan izango dira, hilak 7 eta 8, hain zuzen be. Holan, barikuzapatuan, kantaldia eta kontzertua egongo dira eta zapatuan, txirindulari lasterketea, lehiaketa gastronomikoak, eta euskal jantzak eta Tenerifeko jantza folklorikoak.

Lemoako Tallerreta eta Lemoarietako jaiak, hilaren 15ean ospatuko ditue aurten, musikea eta auzo bazkariagaz.

Santa Marina edo Santamañe eguna 18an da eta Dimako Bargondiako eta Arteako ermitetan mezea egongo da egunean bertan edo aurreko astegoienean. Artean, aurreko domekan izango da, hilak 16. Meza ostean, barauskarria eta Paella Txapelketea egongo dira.

Maria Madalenaren eguna, hilaren 22an da eta Dimako Lamindaon eta Ubiden, jaiak dira. Lamindaon, aurten lehenengoz, auzokide batzuk batu dira "jaiak antolatu eta ohiturak berreskuratzeke asmoagaz", eta "ilusino

handiz" dabizala horretan azaldu deusie BEGITURI. Egun osoko jaiak prestatu dabe. Ubiden be, egun bateko jaiak izango da; barauskarria, Tortilla Txapelketea eta kotxe bat azkoreagaz mozten erakustaldia dagoz aurreikusita.

Zeanuriko Ipiñaburur Santiago eta Santa Ana egunak ospatuten ditue eta horretarako egun biko egitaraua prestatu dabe. Txupina aurreko zapatuan, hilak 22, bota eta auzo bazkaria egingo dabe. Santiago egunean barriz, mezea, karta joko eta bola-jokoa egongo dira auzoan.

Santiagoak, hilak 25, Artean, Diman eta Lemoako Arrañon be ospatuko dabez. Artean, mezea egongo da egun horretan Santiago ermitan, eta ostean barauskarria. Inguruetan Marmitako Txapelketea be egingo dabe.

San Inazio egunean, Bizkaia osoan Gorbeira igoteko ohituea dago eta jai giroa ez da faltauko ezta mendian be.

San Kristobal (Igorre) Garagarrilak 7, barikua

21:00etan, Igorreko lehengo kanten kantaldia Ander Gorospere eskutik. Ostean, Vinagre de Moderna taldearen kontzertua.

Garagarrilak 8, zapatua

10:00etan, txirindulari lasterketea Bizkaiko Txapelketako Jubenil mailakoa Igorretik urtenda. 11:30etan, Paella Txapelketarako izen-emotea.

12:00etan, txirindulari lasterketearen amaiera.

13:00etan, Igel Txapelketea.

14:30etan, paellak aurkeztu.

17:30etan, Tortilla Txapelketarako izen-emotea.

20:00etan, tortillak aurkeztu.

21:00etan, Arantzarte eta Tenerifeko Agrupacion Folklorica Guara-

che jantza taldeen emonaldia. 23:30etan, Akerbeltz taldeagaz erromeria eta ostean Dj Buzz.

Garagarrilak 10, astelehena

12:00etan, mezea eta ostean, barauskarria.

Tallerreta eta Lemorieta (Lemoa) Garagarrilak 15, zapatua

12:00etan, txupinazoa Atutxen eta kalejireia auzotik.

15:00etan, bazkaria Cementoseko etxeetan.

17:30etan, kontzertua.

21:00etan, dj-a Bikandi tabernan. Amaitzeko, oilaskoak erre.

Lamindao (Dima)

Garagarrilak 22, zapatua

10:00etan, igoerea Lamindaoko eleizatik Ilunbera eta ikurriña aldaketea.

12:00etan, mezea, ostean barauskarria.

15:00etan, auzo bazkaria. Txartelak hilaren 9ra arte salgai Baltzola jatetxean (Dima) eta Hagina eta The Quiet Corner tabernetan (Areatza).

16:30etan, Ardoa Barrura txarangea.

18:30etan, herri-kirolak.

20:00etan, txokolata.

Ipiñaburu (Zeanuri)

Garagarrilak 22, zapatua

12:00etan, txupinazoa.

14:00etan, auzo bazkaria. Izena emon hilaren 18a baino lehen 628 619 040 telefonoan. Bazkalostean animazioa.

Garagarrilak 25, martitena

12:00etan, mezea. Ostean barauskarria herriko txistulariek girotuta.

17:00etan, umeentzako jolasak eta Mus eta Briska Txapelketak. Arrastian zehar bola-jokoa.

19:00etan, txokolata.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Garagarrilean eta abuztuan zenbaki bana aterako dau BEGITUK paperean

Erredakzioa

Hamabostekariak, garagarril eta abuztuan, hile bakoitzean, zenbaki bakarra aterako dauan arren, BEGITUK, Arratia, Ubide eta Zeberio informazioa jarraituko dau emoten *online* eta sare sozialetan.

Papereko aldizkariari jagokonean, 22 zenbaki ateraten dira urtean. Hau da, garagarrilean eta abuztuan hile bakoitzean zenbaki bakarra kaleratzen da, hile hasierakoa. Aurten be holan izango da,

eta garagarrilaren eta abuztuaren hilaren erdiko zenbakirik ez da egongo. Hurrengo zenbakia beraz, abuztuaren 1eko izango da eta urri lehenengoan, barriro be, hamabostero kaleratuko da BEGITU Aldizkaria.

Ha-ta guzti be, uda osoan zehar, Arratia, Ubide eta Zeberio gainera informazioa jaso ahal izango da BEGITU *online* eta sare sozialetan, horreen bitartez, uda osoan eta eten barik segiduko daualako BEGITUK informazioa emoten.



ZEBERIO

Hiru kartel lehiaketa antolatu ditu Jai Batzordeak Zeberioko jaiak iragarteko

Erredakzioa

Zeberioko Jai Batzordeak eta Udalak jaietako hiru kartel lehiaketa ipini dabez martxan; orokorra, eta umeentzako jarduerak iragarteko beste bi. Umeen kartel lehiaketei jagokienean, bata 9 urte artekoentzat izango da, eta bestea 10 eta 14 urte bitartekoentzat. Garagarrilaren 28ra arte entregau daitezke kartel proposamenok udaletxean.

Kartel orokorrean, "Zeberioko sandoniak 2023. Abuztuak 31tik irailak 4ra" testua agertu behar da. Bardintasunerantz Bideratuz programearen barruan dago lehiaketa hau. Epaimahaiak, kartelaren edukia eta gaia, originaltasuna eta andra eta gizonen artean bazterkeria alboratu eta bardintasuna bultzatzen dabezan egoerak sustatzea balorauko dau. Irabazleak

70 euroko saria izango dau eta bigarrenak 50 eurokoa.

Umeentzako ekintzen karteletan, "Zeberioko sandoniak 2023. Umeen ekintzak" izango da derrigorrezko testua. Parte hartzaile guztiak oparitu bana jasoko dabe.



LEMOA

Lubakiak musealizaiko dabez Auzolandegiak programako gazteek

Aurten be Lemoako Udalak, Eusko Jaurlaritzaren Auzolandegiak programeagaz, Memoria Historikoa berreskuratzeko beharretan jarraituko dau 1937ko Lemoatxako batailako lubakietan. Hori dala-ta, hilaren 16tik 30era, hainbat lurraldetatik etorritako 20 gazte inguruk, lubaki zati bat txukundu eta musealizatzeari ekingo deusie.

Erredakzioa

2012tik hona, mundu zabaleko gazte askok egin dabe behar Lemoatxako lubakietan, batailearen lekukotasuna emoten daben objektuak topau eta sailkatzen, Aranzadiko arkeologoen gidaritzapean. Igaz arte, gazte boluntarioek txanda bi egiten ebezan. "Baina heldu zan momentu bat, non material asko egoan aterata eta ordenau egin behar zan" azaldu deutso BEGITURI Pablo Rodriguez Lemoako Udaleko Gizarte Teknikariak. Topautakoagaz Kotxepin Kultur Etxean museo txiki bat egin dabe.

Aurten, beraz, lubaki gehiago zabaldu eta material gehiago topau beharrean, dagoana txukuntzen egingo dabe behar auzolandegietakoek. "Igaz txukundu zan lubaki zati bat eta aurten egingo dana da hori musealizau. Zakuak ipiniko dira baina zementua gogorra izango da. Zakuaren kanpoko denpo-reagaz apurtuko da eta barrukoa geratuko da zakuaren markakaz. Zementu normala ipinten bada, eta ez gogorra, zakuak birrindu egiten dira. Azkenaldian metodo hori dabiz erabilten hainbat lekutan" dino teknikariak.

Lana, kulturea eta aisialdia

Garagarriaren 16an, domekea, lekua eta memoria historikoaren

aurkezpena egingo jakie gazteei. Bertan, alkatea eta zinegotziak egongo dira. Astelehenean, museora bisitatxo bat eta Lemoatxa 1937 PR-BI 56 ibilbidea egingo dabe Lemoako Memoria Historikoaren bilakaerearen barri jakiteko. Auzolandegi honetan parte hartzean daben gazte asko Historia ikasleak dirala eta asko dakiela dino Rodriguezek.

Martitzenetik aurrera, astebarruan eta goizeko ordutegian egingo dabe behar lubakiak txukuntzen. Astegoienetan inguruetatik txangoak egingo dabez: Urdaibai eta Bilbora, esate baterako. Jarduna, hilaren 30ean amaituko dabe, Lemoako jaietan. "Ez da lehenengo aldia eta nik oso aberasgarri ikusten dot boluntario horreek herriko jaietan parte hartzea. Eta eurei be asko gustetan jakie".

Lemoako Auzolandegietan parte hartzean daben gazteek lanerako Aranzadiko arkeologoen laguntza izaten dabe, eta aisialdian, Eusko Jaurlaritzak ipinitako beste begirale batena. Atzen honek gidatzen ditu arrastietako ekintzak. Ostatu, ikastetxean hartuko dabe. Aurten, ikastetxeko jantokia obretan dago eta gosaria, bazkaria eta afaria jubiladuen tabernan egingo dabe. Ugerlekuetarako pasea be izango dabe, lan gogorraren ostean, freskaldi bat hartzeako.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Bizkaimendik lau proiektu ekintzaile sarituko ditu bakotxa mila eurogaz

Bizkaiko Landa Garapenerako Elkarteek, euren Bizkaimendi Federakuntzaren bidez, landa eremuetako ekintzaileei laguntzeko lehiaketa bat abiatu dabe.

CaixaBankek sustatutako landa ekintzaileentzako proiektuen deialdi baten bidez.

Erredakzioa

Deialdia, landa ingurunean ezarritako eta Bizkaiko eskualdeetan kokatutako proiektu edo zerbitzuei zuzenduta dago. Lehiaketan parte hartzeako dokumentazioa garagarriaren 28ko arrastiko 14:00ak baino lehenago bialdu behar da posta elektronikoaren bidez Gorbeialde Landa Garapen alkartera.

Laguntza honeetara aurkezten diran proiektuak, deialdiaren oinarrietan ezarritako tipologia baten kokatu behar dira. Enplegua sortzean daben proiektuak; ekoizpen barrikuntzakoak edo elikadura kateari balioa emotera bideratutakoak; merkataritza negozioak zabalitzean oinarritutako proiektuak, edo landa eremuetan jarduera ekonomikoa edo zerbitzukoak

sortzean dabenak, dira tipologia horreek. Ez dabe zertan sektore jakin batekoak izan. Gainerako baldintzak betez, nekazaritzako elikadura, abeltzaintzan, nekazaritzan, energian, basogintzan, biztanleentzako zerbitzuetan edo artisautzan, besteak beste, oinarritzen dan edozein ekimenek jaso leike laguntzea.

Sariak

Mila euroez gainera, hautatutako lau proiektuek, CaixaBanken laguntza programa baten sartuko dira, 6 hilabetez. Programa horretan, negozio plana eta haren hedapena berrikusiko dira, eta sektoreko enpresa erreferente bategaz lan-saio bat edo zabalkunde eta marketin digitaleko plan bat egingo da.



Europako funtsetako 1,6 milioiko inbersinoa egingo dau Gorbeialdek turismo iraunkorra bultzatzeko

Next Generation funts europarretatik datorren 1.655.000

euroko dirulaguntzeari esker, Gorbeialde Landa

Garapenerako Alkarteak turismo iraunkorra bultzatzeko

daua Arratia-Nerbioi eskualdean adierazo dau.

Erredakzioa

Gorbeialderen arabera, diru horrek jasagarritasun turistiko plana abian jartzea ahalbideatuko dau eta plan horren bidez, proiektu turistikoak garatuko dira Gorbeialde LGAgaz turismoan lankidetzan diharduen Arratia-Nerbioi eskualdeko 9 udalen bitartez.

Planak lau ardatz izango ditu: transizino berdea eta iraunkorra, energia eraginkortasuna, transizino digitala eta lehiakortasuna.

Transizino berdearen eta iraunkorraren arloan, jarduera bi aurreikusten dira: natura babes-tea, Gorbeialdeko Parke Naturalaren sARBIDEAK kudeatuz, eta turismo-erabilera hIGIEZIN publikoen

birgaitze jasagarria. Jarduera horreek Areatzan, Artean eta Zeanurin egingo dira.

Energia eraginkortasunerako bost jarduera aurreikusten dira. Gorbeialdeko Deskarbonizazio Programea, lurraldeko turismo

enpresei zuzenduta dago, eta turismoan lan egiten daben berderatzi udalerrietan jardungo da, hau da, Areatzan, Artean, Diman, Orozkon, Otxandion, Ubiden, Urduñan, Zeanurin eta Zeberion.

Transizino digitalari jagokonez, jarduera bi aurreikusten dira: batetik, Gorbeialdeko helmugako fluxuak kudeatutako tresna bat abian ipintea, fluxu horreek Parke Naturalako aparkalekuetako saturazino puntuetatik, udalerrietara banandutako, eta bestetik, Gorbeialdeko helmuga turistikorako digitalizazio programa bat.

Era berean, lehiakortasuna hobetuteko, planak jarduera-bloke bi aurreikusten ditu: eskualdearen identidadean oinarritutako turismo eskaintza jasagarria sortzea, Artean, Zeanurin eta Zeberion inbersinoak eginaz, eta turismo esperientzia hobetutea, Gorbeialdeko ekipamentuetan esku hartuz, Orozkon eta Zeanurin inbersinoak eginaz.



OLATZ URKIZA

"Udala kolektibo guztiei lagunduteko egon behar da: nagusiei, gazteei, atzeritarrei... danei, inor baztertu barik"

EAJ-PNVko Olatz Urkiza Atutxa da Igorreko alkate barria. Ez zan alde handirik egon, EAJk 1.064 boto eskuratu ebazan maiatzeko hauteskundeetan, eta EH Bilduk 928 eta herri erdia kolore batekoa dala dino Urkizak, eta bestea, beste batekoa. Baina gauza askotan dagoala adostasuna uste dau eta alkarregaz lan ona egin daikiela.



Olatz Urkiza.

Erredakzioa

Igorren jaio zan Urkiza eta Igorren bizi da. Gaztetan Londonen bizi izan zan 6 urtez, Lemoan be hainbat urtez bizi izan da, eta bidaia asko egiten ditu. Ha-ta guzti be, beste inon ez dau topau "Igorreko bizi kalidadea" eta jaioterrian bizi da bere familiagaz.

Lanbidez, datu analista da eta Bilbon egiten dau behar Accenture enpresa multinazionalan.

EAJ-PNVk alkatea eta bost zinegotzi lortu ditu Igorren. Zelango taldea egiten dozue?

Edade desbardineta taldea da. Gazteena Erik (Esparta) da, jente gaztearen artean ibiltzen da eta ezaguna da herrian. Zaharrenak Aitor (Etxebarria) esperientzia dauka zinegotzi moduan eta Administrazio publikoan egiten dau behar. Bere esperientzia horregaz proiektuak aurrera ateraten lagunduko dau. Ekonomista be badaukagu taldean eta aurrekontuak egiten eta dirua modu egokian erabiltzen lagunduko deusku. Gizarte kontuetan sensibilitate berezia daukan bat be badago eta berak eskoleagaz, zerbitzu sozialakaz eta abarreko hartu-emonetan lagunduko deusku.

Hamasei urteren ostean irabazi dau EAJk. Zer aldatu da hori gertatzeko?

Ez dakit. Hor kontuan euki behar da pandemia bat pasau dogula eta uste dot hori kudeatzea sano gata izan dala. Uste dot, hortik aurrera, biziteko modua aldatu egin dala eta jenteak ikusi dauala Igorren ez

dala aurrerapausurik egin. Igorre oso potentea izan da bailaran eta derrepente, nik ikusi izan dot, parau egin garala. Emoten dau covidak muga bat ipini deuskula eta ez garala kapaz izan aurrerantza egiteko. Jente batek hori nabaritu dau eta...

Bueno, egia esan ez gara oso urrun egon bata bestearengandik. Emaizetan ikusten da Igorre erdia kolore batekoa dala, eta beste erdia beste kolore batekoa.

Edo kolore bereko, (berdea) tonalitate desbardineta. Bata berde iluna eta bestea berde argia.

Ba bai, berde botila eta berde urdinezka. Egia da.

Azkenean danok gara abertzaleak, aberriari lotura handia deusagu eta gauza batzuetan urrundu arren, beste batzuetan adostasunera heltzean gara. Nik pentsetan dot danon artean lan on bat egingo dogula Igorren. Ni zabal-zabalik nago alkarregaz lan egiteko eta Illarteri (Gumuzio, EH Bildu) be esan deusat, zabalik nagoala eurakaz lan egiteko. Danon artean egin behar dogu ze danon herria da. Eta ni, momentu honetan, danon alkatea naz.

Hasi zara lanean. Ikusi dozuz zeintzuk diran Igorren preminarik handienak?

Lehenengo gauzea, eta niretzat inportanteena, udaletxean lan egiten dabenak zelán dagozan jakitea da: ze lan egiten daben, zelango sentimenduak daukiezan, ze momentutan dagozan eta zer behar daben. Atzen finean, gu politikook, 4 urte

egoten gara eta zeozertxo egiten dogu, baina langileek eroaten dabe lan guztia aurrerantza, eta nik eurakaz egin behar dot lan. Ez eurakaz, nik eurakaz. Horregaitik, nire lehenengo helburua da ikustea euren lana zein dan eta euren taldean sartzea. Taldean gustetan jata lan egitea, eta badakit eurakaz bat egin behar dodala.

Baina herriari begira be gauza asko egin behar dira. Hor dagoz proiektu batzuk martxan ipini behar diranak, eta horreek martxan ipinteko Lurralde Plana begiratu egin behar da. Esate baterako, agirian geratu da behar-beharrezkoa dala frontoia estalita eukitea. Aurtengo eta igazko jaietan euria egin dau eta beharrezkoa da herri erdian aterpe bat eukitea ekintza batzuk egiteko.

Aurreko legealdian onartu zan obrak egitea kiroldegian. Eta hor jarraituko dogu eta begiratu dogu zer gehiago behar dan. Hori zerbitzua jenteak beharizan moduan ikusten dau eta momentu honetan ez dauz beharizan guztiak beteten: jente askok ez dau ordutegi egokia ikusten, eraikinak ez dau emoten aktibidade asko egiteko. Hor begiratu egin behar da eta berrantolatu.

Herria txukundu be egin behar da, garbitu eta auzoak... emoten dau auzoak dagozala apur bat apartauta eta barriro ekarri behar dira. Eurek sentidu behar dabe Igorre dirala eta danok bat egin behar dogu Igorrerri bultzada bat emoteko aurrerantza.

Igorre da Arratiako herririk handiena populazino aldetik eta horrek erakarri egiten dau jentea; dendak eta zerbitzuak dagozanez, inguruko herri txikietatik jente asko etorten da. Hori bentaja ala desbentaja moduan daukazue?

Nik beti bizi izan dot bentaja moduan. Oso harro nago horretaz, gainera. Nik beti esaten dot Igorre eskualdeko burua dala. Igorre, Arratiako motore da. Umeentzako erropea, zapatak, guretzako erropea erosi daiteke eta pentsetan dot holango gauzak bultzatu egin behar dirala eta jenteari erakutsi Igorren zerbitzu asko daukaguzala. Eta gehiago ekarri. Ahal bada, zerbitzu gehiago eskaini.

Igorren bizi kalidade handia dala dinozu. Hori mantenduteko, bultzatzeko eta oindino hobea izan daiten, zer egin daiteke Udaletik?

Nik pentsetan dot inportantea dala industrialdeari bueltatxo bat emotea. Atondu behar da, eta atonduta dagoanean enpresak ekarri behar dira gazteek hemen euki dagien lanpostu bat eta herrian geratu daiten biziten.

Eta herrian geratzeko etxeak be behar dira; eta horri beste bueltatxo bat emon behar jako, etxeak egin behar dira herrian.

Beste alde batetik, kirola, kultura... indartu egin behar dira. Jente asko daukagu kultura edo kirol aukera gutxiagaz eta hori berreskuratu egin behar dogu, dinamizatu herria. Gazteek, nagusiek... danok behar dogu gure gorputza mobimentuan euki. Herria mobidu eta batu egin behar da. Auzoak erdigunean ipini eta danok batu. **Igorren bizi kalidadea ona izanda be, ez da danontzat bardina. Bardintasan diagnostikoaren arabera, Igorren gizon eta andren errenta arrakala %37koa da. Bardintasuna bultzatzeko zer egingo dau Udalak.**

Dirulaguntzak begiratu beharko litzateke baina ez dakit, eskua sartu geinken kontratuak ez-prekario izateko. Ez dakit zein hartu-emon, ezta zelango pausuak emon ahal doguzan be, baina egia da ahal badogu, hor egon behar garala.

Bardintasunaren alde gauza asko egin daitezke. Nik pentsetan dot gazteak arazo handi bat dagoala. Ez dakit nondik datorren, ezta ze aktuzino egin ahal doguzan, baina aspaldion ikusten dogu oin dagozan indarkeria matxista kasuak, ez dirala batez be 50 edo 60 urteko gizonak egindakoak. Gehienak, gazteek egindakoak dira. Hori begiratu behar da: zer gertatzen da gizon gazteakaz.

Lan arloan be badago zeregina. Batez be, uste dot bultzatu behar dogula inor kanpoan ez geratzea. Umeei erakutsi behar jakie edozein lanbide izan ahal dabela, neska zein mutil izan. Eurak gura dabena izan ahal dirala. Gura dabena izan, sexu aukeratik hasita. Jentearen burua zabaltu egin behar da, inor

ez dalako inor baina gutxiago neskak ala mutilak gusteteagaitik eta hori landu behar dogu bardintasan errealerara ailegetako.

Igorren badaukaguz LGTBQ+ kolektiboko gazte batzuk. Ez jata eraso homofoboren barririk heldu, baina ni gai horretan oso sensiblea naz eta gurako neuke gazte horreek jakitea, Udala euren alde dagoala. Igual guk, udal moduan pausu bat aurrera egin behar dogu gazte horreek ikusi dagien euren alde gagozala eta euren beharizanak beteten lagunduten saiatuko garala. Egia esan, gazteria osoaren alde gagoz, baina horreek, batez be trans jenteak beharizan espezifikoki batzuk daukiez. Eta ondoan egon, lagundu eta babesa emon behar jakie.

Udala kolektibo guztiei lagunduteko egon behar da: nagusiei, gazteei, atzeritarrei... danei, inor baztertu barik.

Igorren, beste arnagune batzuetan lez, euskerearen kale erabilereak behera egin dau atzen urteotan.

Begiratu egin behar dogu zelán egin erakargarriago euskeraz berba egitea. Leku askotan bizi izan naz eta ikusi dot inposaketek ez dabela funtzionetan. Aurreko baten, andereño bategaz berba egiten, esan eustan begiratu behar dogula euskerea zelán egin erakargarriago jenteak euskera gehiago erabilteko. Igual jarri beharko gara mahai baten inguruan eta esan zer gertatzen ari dan eta zerk funtzionetan dauan eta zerk ez. Hori, inor baztertu barik eta euskerea erreminta politiko moduan erabili barik. Eta ez dakienei erakutsi behar deutsegu, euskerea eurentzat be altxorra dala.

Ni ointsu Zelanda Barrian egon naz eta maorien hizkuntzeagaz daukien egoerea, guk euskereagaz geunkana oin 30 urteren antzekoa da. Eta esaten eusten, "zuek zelán egin dozue? ze guri esaten deuskue hori ez dala behar lanerako eta ingelesegaz nahikoa dala. Zergaitik gura dozue maoriz berba egin eta telebista bat euki?". Eta nik esan neutsen, Euskal Herria etorteko.

Baina, zer egin dogu kaleko erabilereak jaisteko? Ze pausu emon behar doguz erabilereak errekuperetako?

JOSE MARI ATUTXA

"Herri bizigarri baten sinisten dogu eta hori danon artean egin beharko dogu"

Bagilaren 17tik Jose Mari Atutxa (EH Bildu) da Dimako alkate barria. Hainbat urte udalgintzan ibili arren, lehenengo aldia da alkate dala, baina oin arteko moduan, oingoan be taldean daukala begiradea dino, "zerrendea ez dalako udalean hasten, herrian baizik". Bere taldea, Maider Kortazarrek, Borja Ruizek, Mari Jose Barrenetxeak eta Haizea Ziarrustak osotuten dabe.

Dimako herritarra da Atutxa, urteetan herrigintzan jardundakoa, batzuetan alkarte barruan eta beste batzuetan izen bako herritar taldeetan, "baina beti izaera komunitarioa daukan proiektu baten sinistuta" bere esanetan. Persona sentibera eta enpatikotzat dauka bere burua eta inguruko arazoak bere egin eta bere esku dagoana egiten saiatzen dala azaldu deutso BEGITURI.



Jose Mari Atutxa.

Erredakzioa

2019ko udal hauteskundeetan be zeu zinan EH Bilduko zerrendaburu eta EH Bilduk (391 boto) EAJk (311 boto) baino boto gehiago lortu arren, Dime Aukeratu plataformek (242 boto) euki eban giltza, nogaz bat egin ebazterakoan. EAJgaz batu zan eta EAJk izan dau agintea lau urte honeetan. Aurten Dime Aukeratu plataformea ez da aurkeztu eta oingoan, barriro be EH Bilduk (466 boto) EAJk (395) baino boto gehiago lortu dauz eta zeuk eskuratu dozu aginte makilea. Ze balorazino egiten dozu?

Hauteskundeetan herritarrei galdetzen jakie ze programa politiko eta ze taldek gidatuko

dauan herria 4 urtetarako. Aurteko hauteskundeetan Dime Aukeratu plataformaren botoak EAJri eskaini eutsazan, zeozelan esatearren, eta ondorioz lau urtez izan da EAJ gure herriko agintean. Oin, EH Bilduk berreskuratu dau gehiengo eta udal programea beteteko konpromisoa hartzean dogu. Konpromisoen artean, herritarren parte hartzea sustatzea eta maite dogun herria eregiten jarraitzea dagoz.

Zer aldatuko da EH Bilduko legealdian? Eta zer ez da aldatuko?

Esandako moduan, herritarren parte hartzeako aukerak zabaldu gura dira, eta parte hartzeako ezinbestekoa izango da gardentasunez jokatzea. Aldaketa bi horreek ezinbestekoak izango dira planteetan dogun herri politikan. Hizkuntza politika eraginkorra, euskerearen aldekoa, eta dimoztar guztientzat bizigarria izango dan herria eregitea ezinbestekotzat jotzen doguz. Eta dimoztar guztiak dinogunean, kolektibo zaurgarriak, gazteak, andrak zein haurrak daukaguz buruan, adinekoak, zein etorkinak, eta baita bere herriaz gozatu eta herrian bizi gura daben herritarrek be.

Herritarren ahalduntze eta parte hartzean ezin dira errepetidu, azken legegintzaldian emondako hainbat egoera. Besteak beste, herriko plazan egin beharrekoa hiru personen artean ebaztea eta herritarrei "proposamen" legez aurkeztutea, obren lizitazio eta adjudikazioa ebaztita egoanean; urtez urte Auzo batzarretan herritarrek egindako eskaera eta proposamenei ezikusiarrena egitea sistematikoki; udal oinarriko zerbitzuen hobekuntzan, saneamentua esate baterako, herritarrek alboratu, dagozan alternatibak azaldu barik eta euren bizimoduetan izan leikiezan ondorioak ostondutea; pandemia-

ren gogorrean herritar talde bat zaurgarrienei laguntzeko antolatu zanean, Udalak hau hauspotu, babestu eta baldintza egokiak sortu beharrean, desaktibatu eta desagertu arazotea bazterketearen bidetik; edo herritik kanpoko erakunde edo alkarteei bideratutako dirulaguntzak ezelango justifikazio barik onartutea, bien bitartean, herriko alkarteak gardentasunaren izenean, jasotako dirulaguntzen justifikazio zehatza egin behar dabenean. Egoera honeek guztiak, herritarrek desaktibetan dabez, eta hurren daukien administrazioagazko konfiantza galtzean da eta urruntze prozesu bat emoten da. Hori iraultzea da oin gure erronka.

Zer gertatuko da herriko plazeagaz? EH Bildu agintean zala egin zan proiektu bat modu parte-hartzailean, baina herritar batzuk ez ziran ados egon eta ez zan aurrera atera. Ze asmo daukazu plazeari jagokonean?

Hasteko ikusi beharko da aurreko legegintzaldiko esku hartzea noraino heldu dan. Zer egin dan, zer adostu dan eta nogaz. Eginda dagoanaren gainean lan egin beharko dogu. Gure proposamena herritarra izan zan eta batzuk ados ez egotea normaltasunaren barruan sartzean da, azken finean legegintzaldi honetan egin danagaz be herritar asko ez dagoz ados. Herritar askok plazako gunea beste era batetara irudikatzen dabe. Plaza danona da eta ikusiko dogu momentu honetan herritarrek ze lehentasun emoten deusien herriko plazearen erabilereari.

EH Bilduk jarraituko dau herriarentzat proiektu handietan prozesu parte-hartzaileak planteetan, ezta? Zelan planteauko dira prozesuok, herritarren artean gatazkari ez egoteko?

Gatazka ez da zeozer txarra berez. Gatazka dagoanean, berba egin

behar da, bestearen lekuan ipini eta gauzak adostu behar dira. Eta ez da prozesu erraza. Baina ez dogu sinistuten udal talde guztiz ahaldun baten: gu zainduko gaituen agintariak, gure onerako eta gugaitik ebaztiko dabenak. Herritarren eretxiak behar doguz, euren kezkek entzun, eta euren gogoak aztertu. Eta horregaz aukerak mahai gainean ipiniko doguz, eta herritarrokaz ebaztia konpartiduko. Hori da parte hartzea. Ez da egun batetik bestera egin daiteken aldaketea.

Andren kontrako erasoak ez dira eteten, euskerearen kale erabilereak behera egin dau arnasguneetan... Herri mailan eta Dimako errealidadea kontuan hartuta, ze egingo dau udal gobernu barriak egoerea hobetuteko?

Aurretik esandako moduan, lehenik eta behin gai horreen egoerea zein dan ikusi beharko da, aurreko taldeak egin dauanaren gaineko balorazioa egin beharko dogu eta ezinbestean horretarako udaleko informazioa ezezik, herriko talde, alkarte eta herritarrek egon beharko gara, euren be euren balorazioa egin eta aurrera begirako asmoak diseinatu dagiezan. Sendotzea euren eskutik egingo da, eta alkarregaz egingo dogu.

Dima, atzen hoge urteotan, batz bestekoetan, gehien hazi diran herrien artean dago. Hau da, atzen hoge urteotan, jentea etorri da Dimara, bere bizitza proiektua bertan egin guran. Zer dauka erakargarri Dimak?

Herri zoragarria daukagu, historiaz betea eta etorkizunari ekiteko gogoz gagoz. Zaintzan ipiniko dogu ahalegina, herritarrena zein gure inguruarena, hizkuntzan eta kulturaren zein harremanetan. Herri bizigarri baten sinisten dogu eta hori danon artean egin beharko dogu.

Herri zoragarria

daukagu, historiaz betea eta etorkizunari ekiteko gogoz gagoz. Zaintzan ipiniko dogu ahalegina, herritarrena zein gure inguruarena, hizkuntzan eta kulturaren zein harremanetan

MEMORIAREN OIHARTZUNAK

Lemoatxa 1937 ibilbidean kokatutako lau artelanez osotuten dabe Iker Vazquezen Memoriaren Oihartzunak

Urteak daroaz Lemoako Udalak 1936ko gerra, Lemoatxako bataila eta gerraostearen memoria historikoa berreskuratu eta gordetzeko lanean. Horretarako egindako ekintzen artean, Udalak "Oroitzeak dakarren askatasunaz" izenpean, Arte Ederretako Fakultadeagaz proiektu artistiko baten lehiaketa antolatu eban igaz. Lehiaketa horren irabazlea, Iker Vazquez Lemoako artista izan da, eta bere proiektu artistikoa osotuten daben lau artelanak, herritik pasetan dan Lemoatxa 1937 ibilbidean ikusi daitezke.



Bizitzaren begiralekua.

Erredakzioa

Memoriaren gaineko hausnarketa hau egiteko, lau elementu klasikoak erabili dauz artistek. Bizitzaren begiralekua (lurra), Memoriaren parkea (airea), Oroimenaren aterpea (sua, argia) eta Ahotsen bidea (ura) dira artelanoak, eta 1936ko Gudariaren parkean, izenik ez daukan beste parke baten, tunelean eta erreka ondoko ibilbidean, hurrengo hurrengo, aurkitu daitezke. "Herritik Lemoatxara doan PR bat dago eta nire idea zan herritik doan ibilbide horretako zati baten lau interbenzino artistiko egitea" azaldu deutso BEGITURI egileak. "Herriko memoria historikoari buruzko informazioa eta Guda Zibila eta gerraostea bizi izan eben personeren esaldi batzuk hartuta, memoriaren inguruko hausnarketea egiten da obra honetan. Interbenzino guztietan adierazoten da memoria hauskorra dala eta beti ez daukagula presente, gogoan euki arren, batzuetan joan egiten dala, eta gero bueltan etorri. Idea horregaz olgetan, artelanaren

Memoriaren gaineko hausnarketa hau egiteko, lau elementu klasikoak erabili dauz artistek. Bizitzaren begiralekua (lurra), Memoriaren parkea (airea), Oroimenaren aterpea (sua, argia) eta Ahotsen bidea (ura)

poetikea erabiliz, hausnarketa bat egiten saiatu naz".

Bizitzaren begiralekua
Bizitzaren begiralekua izeneko

lana, 1936ko Gudariaren parkean dago eta sei zugatzek osotuten dabe; sei zipres edo altzifrek, hain zuzen be. Distantzia bardinetara dagoz landatuta eta alboetakoak txikerragoak dira: zenbat eta erdirago, handiagoak dira, zerura begira dagoan gezi bat irudikatuz. Erdian egon beharko litzateken arbola falta da eta hutsune hori Lemoatxara zuzenduta dago, jentek ikusteko falta diranak, hango batailan hildakoak dirala.

Memoriaren parkea

Bigarren artelana aireagaz lotuta dago. Idea inportantea da belaunaldien arteko erlazinoia eta belaunaldiz belaunaldi gertatu zana esatea, zaharrek gazteei


pasetea, transmitidutea. Izan be, herri baten memoria ez galtzeako transmisioa beharrezkoa da. Berbak airetik doaz eta uhinak sortzean dabez. Horregaitik hau, biribil baten erdian, uhin baten forma daukan aukia da. Inguruan, harri bat uretara botaten danean sortzean diran moduko uhinak dagoz. Transmisioa airetik doa eta banku honetan jentea jarri daiteke berba egiteko. Bankua be Lemoatxara begira dago.

Jesarlekuan urdinez idatzitako "memoria" berbea dago. Pintura termokromikoagaz dago margotuta eta bero egiten dauanean kolorea galtzean dau, garden bihurtuz. Memoriari gertatzen jakon moduan, aldatu egiten da denporeagaz, bere kolorea joan eta etorri egiten da.

Jesarlekuak, pasetan dan jentea geratzera konbidau gura dau. "Erabilten ez dan parke baten dago eta hemendik jentea pasau bai, baina ez da geratzen. Lau artelanon beste idea bat be bada lekuak aktibetea. Ez bakarrik arteagaz eta memoriagaz erlazionetea, baita jentek lekua erabiltea be"



Memoriaren parkea.



dino Vazquezek.

Oroimenaren aterpea

Picassoren "Gernika" koadroko begia dago tunelaren horma baten margotuta eta testu bat beste horman. Testuak, 1937an gaztea zan herriko baten lekukotasuna jasoten dau. Bera zan arduraduna Cementos fabrika, hegazkinak etorten ziranean, sirenea jo eta jenteari esateko aterpeetara joateko. Pintura fotoluminiszenteagaz margotuta dagoz biak eta argiztapen berezi bat daukie. Argituten danean, pintureak berak argia botaten dau. Barriro be, memoriaren aldizkakotasunaren idea gogora ekarriz.

Natura elementuen artean, argiagaz erlacionauta dago Oroimenaren aterpea. "Sua, argi bihurtu dot. Suak argia emoten dau. Sua kobazuloetan babes moduko bat zan, eta berotasuna eta lasaitasuna emoten eban". Holan, tunelean, gureak egiten doguz beste batzuen bonbardaketen memoria eta babes beharrezana.

Ahotsen bidea

Hiru esalditan, gerra eta gerraosteko lekukotasunak jaso ditu Vazquezek Ahotsen bidean. Esaldiok, guda eta gerraostea bizi izandako herriko jenteari esandakoak dira. Pintura hidrofugoagaz idatzita dagoz eta euria egiten dauanean bakarrik irakurri daitezke. Euriak, urak, ekarten dau geure begibistara memoria.

Ahotsen bidea, erreka ondotik doan bidea da. Ura da laugarren artelanaren elementua.

Picassoren "Gernika" koadroko begia dago tunelaren horma baten margotuta eta testu bat beste horman



Ahotsen bidea.



Oroimenaren aterpea.

Iker Vazquez

Iker Vazquez (Bilbo, 1977), Derion, Basaurin eta Galdakaon bizi ostean, hainbat urte daroaz Lemoan biziten. Artista, ikertzailea, diseinatzailea, programatzailea eta *knowmada*, batez be iragana eta oraina batzean dituen proiektuak garatzen ditu. Artearen bidez, identitatearen eta memoriaren erakuntza sozial, politiko eta kulturalaren prozesuei buruz hausnartzen dau, memoria kolektiboaren eta banakako historiaren arteko tensioagaz jolastuz.

Bere artelanak eta proiektuak artea ezagutarazoteko tresna moduan ulertzetik sortzean dira, ikerketan eta esperimentazioan oinarrituta. Multidiziplinarra, metodologia, bitarteko eta teknologia ugari erabiltzen ditu: errealidade areagotuko piezak, programazio lengoaiak, pintura fotoluminiszentea, berniz hidrofugoa eta abar. Bere lanek, tokiko persona eta eragileakaz loturak bilatzen ditue parte hartzeako proiektuak garatuteko.



zan. Persona horreek Aita Marira igoterakoan adierazo eben gurago ebela hil, Libiara bueltau baino. Gazteak ziran gehienak eta Libiatik iges egiteko bigarren edo hirugarren saiakerea zan hori.

Eta itsasoaren beste aldean, Europan, hobetu da egoerea?

S.V.: Italian adibidez, txarrera edo hobera... nik uste dot aldatu egin dala. Oin erispide desbardinak dagoz, baina asmoa bardina da: gu erreskate eremuetatik atera eta migrazinoaren arazo errealei konponbide instituzionalik ez emotea. Lehen bide penaletik zan, oin bide administratibotik. Lehen hurbileko portu bat emoten euskuen, baina denpora asko behar zan baimena itzaroteko. Oin jarraian daukagu baimena, baina urruneko portuetan. Egiteko modu desbardinak dira, baina asmo bardinagaz.

I.M.: Europa hegoaldeko herrialdeak, gaurkoz definitu ez dan arren, fronte komun bat eragiten dabiz migrazino politikan. Espainia, Italia, Grezia, Txipre eta Malta dira honeek. Italian emoten dau Salviniaren politikak motzegeiak zirala publikoaren aurrean eta Europako Batzordearen faxak egon ziran. Oin beste formula bat topau dabe, bide administratibotik, ziurrenik aurrekoa baino politika eraginkorragoa da hau. Izan be, itsasoa erreskate ontzi barik ixten dabe, baina zarata gitxiagogaz. Lau egunera dagoan portu batera bialtzen gaitue, gure baliabideetan eraginda.

Beste alde batetik, Europan badagoz Basoa moduko lekuak, zuok erreskatautako batzuk pasauko dira proiektu solidario honetatik.

I.M.: Gure interes nagusia da, kontzientziak itzartzea. Bide horretan, Basoa moduko lekuak zein Arratiako harrera etxeak egotea eta bertoko eskoletan edo zentro sozialetan ikusten dogun jokabidea oinarritzkoa da. Hau da bidea, migrazinoaren oinarritzko errazoiak ulertutea. Izan be, jatorri horreek hemen dagoz. Gure bizimoduan, konsumidutako moduan eta daukaguzan pribilegioak, merezi doguzalako daukaguzanaren asimilazinoan. Eta azken hau ez da holan. Gauzek ez dabe balio eurengeitak ordainduten doguna. Eta prezio desbardintasuna Afrika, Latinoamerika eta beste lurralde batzuetako jentea dabil ordainduten.

Hori da ulertu behar doguna. Aukera bi dagoz mahai gainean: prezio justua ordaindu behar dogula ulertutea edo zuzenean, ohiturak aldatzea. Konturatzeko, daukaguzanak baino pribilegio gitxiagogaz be bizi gaitkezala. Idea hori hemen ikusi eta arnasten da. **Nahikoa da, SMH eta Basoa moduko alkartasun proiektuak,**

tuakaz, migraenteen arazo errealei aurre egiteko?

I.M.: Nik uste dot jarraikortasuna dala giltza. Mobimentu sozialetan, honeen arteko alkarlana funtsezkoa da eta iraunkorra izan behar da. Ezin dogu etsi. Erabili behar dogun osagai nagusia da gauzak holan dirala eta aurrera egiteko modu zuzena dala. Ziurtasun hori transmitidu behar dogu. Aurrera egin behar da, etikoki zuzenena dalako, punto.

Lehenengo baten kide batek esaten eban: "Ni ikasketak egiten hasi nintzan garaiko kideak han (goian) dagoz eta ni hemen (behean)...". Ez. Beharbada zu zagoz goian, balio handia daukien gauzak egiten zabizalako, balioa ekonomikoa ez bada be. Etxe txikiagoa eukiko dozu, baina egiten dozunak kontu korronte batek baino gehiago balio dau.

Oin deskantsuan zagozie Basoan, baina imajinetan dot zeozer antolatzen be bai...

S.V.: Jardunaldi honeek taldelana egiteko erabilten doguz. Lanke-ta desbardinak egiten doguz, generoaren gainean barbarako. Bai eta erresilientzia eta motibazinoaren lanketea, Estaduan partetik ipinten jakuzan trabei aurre egiteko. Baina bai, hurrengo misinoa prestatuten dabiz eta boluntarioak gabiz oin beharreen. Oindik aurrera, nazioarteko uretara urtetako baimena itzaroten gabiz. Bandera zuriaren ikuskapena egin behar deuskue baina nahikotxo oztopo ipinten dabiz...

I.M.: Herrialdeak, euren ontzi flotaren kalidadearen arabera sailkatzen dira bandera zuri, gris edo baltzean. Kontratu onak lortzeako oinarritzkoa da hau, izan be, suposatuten da bandera zuriko herrialdeen itsasontziek segurtasun bermeak daukiezala eta beraz, aseguruak merkeagoak dirala. Espainiak gaur egun bandera zuria dauka erregistrata baina gero eta barku gitxiago dagoenez, kategoriaz bajatuteko arriskua dago. Nazioartean egindako kontroletan segurtasun akatsak dirala-ta bost ontzi geratuta badagoz, bandera gris mailara bajatuko leiteke Espainiar Estadia. Horregaitik dira hain gogorak ikuskaketak eta gugaz, gehiago. Zergaitik? Italiak hau erabili ahal daualako presino elementu lez. Dinoena da: "Erreskate ontziak bialdu ezker, goitik behera ikuskatuko doguz". Edozer gauza topetan badabe, Espainiako flotea kategoriaz bajatu daiteke, beti dagozalako kontroletan geratutako ontzien mugatik hur.

S.V.: Gainera, martian beste dekretu bat urten zan, non artikuluetako bat, erreskate ontzi zibilentzako berezia dan, hau da, guretzat eta Open Arms-entzat. Dekretu honek dino, erreska-



Aita Marikoak Arteako eskolako umeakaz goiko argazkian eta Basoan behekoan.

Argeliatik be hasi dira gero eta gehiago urteten... Uda gogorra izango da Mediterraneoan

teak egiten doguzan eremuaren ardurea daukan herrialdearen baimena behar dogula. Libia eta Tunisian ez dago segurtasun nahikorik. Beraz edo Malta, ez dabe erantzuten, edo Italia, eskoi muturreko gobernuduna, bakarrik daukaguz aukeran. Dekretu hau gu blokeatzeko dago pentsauta.

Zer egin holango kasuetan?

S.V.: Eutsi, burukatu eta ekin.

I.M.: Burrukan segiduteko prest egon behar gara. 2018an gertatu moduan, gogorra da portuan geratu behar zaralako, jentea hilten ikusten eta Europako mugetan egiten diran basakeriak entzuten, zuzenean ezer egiteko aukera barik. Baina hemen be, itsasoan egotea lez, garrantzitsua da era prakti-

boan eustea eta persona horreek migratzeko eskubidea daukiela aldarrikatuten jarraitzea. Baina gata da, itsasoan egoteko gaitasuna izan eta ezin portutik urten.

Garrantzitsua izango da itsasoan egotea, zelan aurreikusten da uda?

I.M.: Tunisiatik urtekerek gora egin dabe eta asko. Oin gobernu ultrakonserbatzaile bat dago, dikadura bat, eta persona subsaharriarren atzetik dabil. Oin dala hile batzuetatik hona, Libiatik baino txalupa gehiago datoz bertatik. Lehen, Tunisiak bizitza egiteko aukeraren bat emoten eban, baina oin ez da aukera bat. Argeliatik be hasi dira gero eta gehiago urteten... Uda gogorra izango da Mediterraneoan.

PELOTEA

Oier Etxebarria igorreztarak agur esango deutso pelota profesionalari

Oier Etxebarria pelotariak, Promozino mailako Binakako txapelduna birritan izandakoak, ez dau hurrengo urtean pelotan segiduko.

Erredakzioa

Azaldu dauanez, ingeniari lana eta pelotea, batera buztartu ezin dauzalako hartu dau ebazia Etxebarriak. Agurra, garagarri-

ren 21ean izango da Bermeon, jokatuko dauan atzen partiduan. Danel Elezkanogaz batera, Arkaitz Eskuza eta Dario Gomezen kontra arituko da, "partidu gogorra". Etxebarria, bere pelotari ibilbi-

deagaz gustura agertu da: "Nire txikitako ametsa bete ahal izan dot". Horrezaz gain, pelotearen munduan atzen urteetan ezetutako jenteagaitik be poztu da. Aspeko jentearentzat, ofizinaroentzat, masajistentzat,

entrenatzaileentzat, Lemoako pelota klubarentzat, lagunentzat eta familia-
rentzat izan dauz berba onak: "Es-

kerrak emon bide honetan lagundu deustien persona guzterie, bakotxak bere apurra ipini dau".



HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA

Beluzen deya jabetza *Beluzen deya proiektuak*

- Salmenen zein aldatu
- Luzak (makilak, landak, basak...)
- Etebiziak (pilot, baserri, errek...)
- Garaioak
- Larri komertzialak
- Pabiloiak...
- Balnearioak

Irakin berriak erakitzeko
Emetxoak
Aktibitate-proiektuak

- Sare diseinua
- CEE eta IE-ak
- Ningintza aholkularitza
- Negozioak irakitzeko kudeaketa

arratia
INMOBILIARIA

Unibertsitat Agura 23. sarea - Igorta
Ningintza: 94 673 92 93 - 401 94 36 36
Bilbao: 94 673 92 93 - 401 94 36 36
E-posta: arratia@arratia.com

Autokontsumo Fotovoltaikoa

Dirulaguntza handiak dagoz, aprobetxatu!

AURREKONTUA ESKATU

Eguzki panelak jarri eta aurreztu %50 zure faktura elektrikoan

Arratian jadanik proiektu asko eginda!

PROIEKTUAREN KUDEAKETA OSOA

Memoria teknikoa, osagaien instalazioa eta legeztapena

944 567 368
www.ekoleds.com
Bedia | Bizkaia
info@ekoleds.com

ekoLEDs
INST. ELECTRICAS
600 565 079

amorrortu
taberna - jatetxea - ostalua

OSTATUA

638 712 523

Ezbiate 1, - 48330 LEMOA - Bizkaia
www.alojamientolemoa.com
info@alojamientolemoa.com

begitu
eus

Kili-Kili
Amigo eta Puntukoak

Lekendakal Agura 10 - IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 673 43 81

ASESORIA Gorbeialde

Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 20, 1B 48143 Areatza
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Olaetxe
OPTICA

Graduazioak
Ikusmen terapia
Ikusmen gubitua
Begiko tentsioa
Lentillen adaptazioa
Kiroletarako betaurrekoak

Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

Gure
ikastetxeak
Euskalduna
kalidazkoak
herrikoia

JB Eguzkiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Dima

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 428 78 15 Artea

Arratia BHI
Tel.: 94 428 79 34 Igorre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

I. Zubizarreta HLHI
Tel.: 94 673 60 22 Igorre

Haur Hezwuntza
Lehen Hezwuntza
Dorrigorrezko Digarren Hezwuntza
Datxilergoan
Hezwuntza Zirihoan

2 urteko 18ra

MENDIA

Zeanuriko mugetatik egun biko ibilaldia antolatu dabe

Erredakzioa

Garagarriaren 22an eta 23an, zapatu-domekan, izango da herriko mugetatik ibilaldia. Partaideak 08:00rak aldera batuko dira Zeanurin eta 25 kilometro inguru egingo ditue eguneko. Arrabako aterpean egingo dabe lo, baita afaria eta hurrengo eguneko gosaria be. Honek 25 euro inguruko prezio izango dau. Hurrengo eguneko bazkariak barriz, 20 euro inguru. Izena udaletxean emon behar da hilaren 7ra arte. Kultur Batzordeak, Joko Alaik eta Zeanuriko Udalak antolatu dabe ibilaldia.



PELOTEA

Hogeta bi txapeldun itxi ditu aurtengo Txutxin Txapelketeak

Erredakzioa

Bagilaren 16an emon eutsan Lemoako Eskupilota Taldeak amaiera aurtengo Txutxin Txapelketeari, binakako hamaika finaletan. Umeen mailako hamar partidu eta gurasoen bat ikusteko aukerea izan eben hurreratutakoek. Holan, hogeta bi txapeldun itxi ditu aurtengo txapelketeak, bai eta giro ederra antolatzaileen esanetan: "Giro polita bertan sortu zana. Barriro be eskerrak emon hurbildu zarieno, parte hartu dozueno eta zorionak dano! Datorren urteko txapelketan ikusiko gara!".

Holan, hogeta bi txapel banatu dira aurtengo, honek dira irabazleak: Uxue Gaston eta Hodei Narbaiza, Unax Gonzalez eta Aiert Emaldi, Jon Fernandez eta Lander Ardanza, Lur Incertis eta Paule Etxenausia, Mikel Sanchez eta Iulian Tanase, Aitzol Meabe eta Igotz Atutxa, Saioa Gonzalez eta Laia Aparizio, Naia Uriarte eta Jaione Fernandez, Unax Rodriguez eta Euri Muruzabal, Joseba Bediaga eta Hegoi Ibargarai eta gurasoak, Ugaitz Atxutegi eta Juanto Martinez.

TXIRRINDULARITZEA

Udaberrikopa eta Bizkaiko Kopa irabazi ditu Peio Legina Aurrekoetxeak

Bagilaren 25ean jokatu zan Sondikan, Bizkaiko ziklismo eskoletako Udaberrikopako atzen lasterketea. Arratia Ziklista Eskolako Peio Legina igorretarrak lortu eban bertan Bizkaiko Kopako txapela, Umeen kategorian bigarrenen.

Erredakzioa

Udaberrikopa challenge-a be irabazi eban eta Euskadiko Selekzioagaz Espainiako Kopako finaletan egoteko txartela be, bagilaren 30ean jokatu zana. Dana dala Legina gaisorik egoan eta ezin izan zan joan.

Udaberrikopan, zazpi lasterketa dagoz. Sondikakoa azkena zanez, aurreko lasterketetan lortutako sailkapenei esker, ordurako Leginak irabazita eukan challenge-a. Bagilaren 25eko lasterketan, Bizkaiko Kopa irabaztea be lortu eban.

Bizkaiko Kopa

Sondikako lasterketan, umeen kategorian Bizkaiko Kopa jokatu zan eta hori be AZEko Legina-entzat izan zan. Igorretarra ez

zan lehenengoa izan helmugan, laugarrena baino, baina lehenengo bizkaitarra izan zan bera. Izan be, Sondikan, Bizkaiko eskoletako

txirrindulariez gainera, Euskadiko Selekzioak be hartu eben parte eta lehenengo hirurak arabarrak ziran.



Peio Legina podiumean.

Junior mailako Bizkaiko Txapelketako lasterketea jokatu da sankristobaletan

Erredakzioa

Arratiako Ziklista Elkarteak (AZE) antolatuta, garagarriaren 8an, Kadete eta Juniorreko Kopa Bizkaia lasterketea jokatu da Igorren, San Kristobal jaietako egitarauaren barruan. Proba, 10:00etan urtengo da Igorreko Lehendakari Agirre kaletik eta Arratiatik 87 km inguru egin ostean, San Kristobalen amaituko da. Bertan 90 txirrindulari inguruk hartuko dabe parte.

Ibilbideak zirkuitu bik eta San Kristobalerako igoerak osotuten dabe. Lehenengo zirkuitua, Igorretik Zeanurira eta buelta, hirutan egingo dabe txirrindulariek. Gero, bigarren zirkuituan, Igorreko errotanda hartu eta San Juan, San Kristobal, Biteriño, Santiago, Dima eta Igorreko Beheko Plazara izango da ibilbidea. Zirkuitu hau bi bider egingo dabe. Ostean San Kristobalera igongo dira helmugara.

Aimar Arauzo, Markel Ealo, Txaber Lazpita, Markel Maguregi, Aner Zuloaga eta Florian Onescu AZEko txirrindulariek hartuko dabe parte.

San Kristobal eta AZE

Igorre Sari Nagusiaren izenpeko XLV. edizioa da aurtengoa. Urte askoan, Igorreko jaietan jokatu izan da Kadete mailako lasterketea, bai

na igaz hasi ziran Junior mailakoa San Kristobal auzoko jaietan egiten.

San Kristobal auzoa sano lotuta dago AZEren sorrereagaz. Izan be, Igorreko Ziklo-krosagaz

batera sortu zan ziklista alkartea eta 1979 eta 1993 bitartean, San Kristobaleko zirkuituan jokatu zan ziklo-krosa. Murias talde profesionala be auzoan aurkeztu zan.

CADETES
AMOREBIETA Apirilak 1
BALMASEDA Apirilak 22
DURANGO Apirilak 23
MUSKIZ Apirilak 30
ETXEBARRIA Ekainak 3
GETXO Ekainak 18
BERANGO Uztailak 25
MUNGIA Abuztuak 19
TRAPAGARAN Abuztuak 20
GORDEXOLA Abuztuak 29
KARRANTZA Irailak 2

JUNIOR
BERRIATUA Martxoak 11
AMOREBIETA Apirilak 2
MUSKIZ Apirilak 30
ORDUÑA Maiatzak 1
KARRANTZA Maiatzak 6
MENDATA Ekainak 3
MUNGIA Ekainak 10
IGORRE Uztailak 8
SOPUERTA Uztailak 22
SODUPE Abuztuak 6

IKASTAROAK

Lemoako Udalak ikastaro eskaintza oparoa prestatu dau ikasturte barrirako

Jenteak "patxadaz" eta "prisa barik" aukeratutako, Lemoako Udalak aurkeztu dau udal webgunean, aisialdiko 18 tailer eta ikastaro eta kiroldegiko beste 15ek osotuten daben 2023-2024 ikasturterako eskaintzea. Abuztu amaieran, etxe guztietara heldu arazoko da informazio hau paperean.



Erredakzioa

Aisialdi eta kirol ikastaroen eskaintza oparoa eta ugaria da. "Zenbakiez harago, ikastaroen mamiari erreparau ezkerro, Lemoako herritarrek izango dabe non aukeratu, zertaz ikasi eta gozatu, buru-bihotzak elikatze" dinoe Udaletik Udal boletinaren.

Ikastaroaren nondik norakoak, berau noz hasiko eta noz amaituko dan, asteko zein egunetan izango dan eta ordutegia, prezioa eta beste zehaztapenak be emoten dira foiletoan. *Lemoa.net* webgunean eskuragarri dago informazio guztia.

Aisialdia eta kirola

Aisialdi tailer eta ikastaroak hurrengoak dira: *Ginekologia naturala eta sexu ahalduntzea I,*

Gizontasun berriak parekidetasunerantz pausoka, Emakumeak elkarrekin hazteko espazioa, Musika familiar, Umeen irakurle taldea, Argazkigintza digitala, Informatika, Eskulanak, Death Cafe, Teknologia berriak pertsona nagusientzat, Euskara eskolak, Euskara merkatariantzat, Pertsona migratuentzat euskara, Ginekologia naturala eta sexu ahalduntzea II, Robotika haurtzaroen, Dronen munduan murgiltzen, Denboraren bankua eta Komunikazio ez bortitza.

Kiroldegiko eskaintzea barriz, hauxe da: *Areto bizikleta, Mantentze gimnasia, Small Groups, HIIT, Core Training, Haurdunaldi aktiboa, Entrenamendu funtzionala, Gazte fit, Aeromix, Pilates, Hipopresiboak, Yoga, Eskalada eskola, GAP eta Yoga haurrak.*

LIBURUTEGIAK

Abuztuan zarratuta egongo dira udal liburutegiak

Erredakzioa

Arantzazuko liburutegia garagarilaren 31tik abuztuaren 13ra arte egongo da zarratuta. Igorre, Lemoa eta Zeberioko liburutegiak abuztu osoan, eta Bediakoak garagarilaren 15etik urri lehenengoaren 5era arte zarratuta dago atean. Dimakoa zarratuta dago urrietara arte.

Ordutegiari jagokonean, Arantzazukoak neguko bera izango dau; hau da, 17:00etatik

19:00etara, baina beste liburutegiek udako ordutegia izango dabe. Igorreko liburutegiaren udako ordutegia 09:00etatik 13:30era arte da, eta indarrean egongo da urri lehenengoaren 12ra arte. Lemoako liburutegiak barriz, garagarilean, 11:00etatik 14:00etara arteko ordutegia izango dau eta Zeberiokoak, 11:00etatik 13:00etara. Bediakoak, garagarilaren 14ra arte, 10:00etatik 13:00etara egongo da zabalik liburutegia.

FOLKLORE BIZIAN

Indonesia, Mexiko eta Galdakaoko jantza taldeak egongo dira Areatzan, Folklore Bizian jaialdian

Hilaren 24an, 20:30ean, Folklore Bizian jaialdian, Galdakaoko Andra Mari Eusko Dantzari Taldeak, Indonesiako KTF Radha Sarisha folklore taldeak eta Mexikoko Folkloriko Viva Chihuahua taldeak jantza erakustaldia egingo dabe Areatzako plazan.

Erredakzioa

Galdakaoko Andra Mari jantza taldeak antolatuten dau urtero Folklore Bizian jaialdia, eta mundu zabaleko jantza taldeak ekarten ditu euren ondarea eta ohiturak ezetu dagiguzan. Aurten, Indonesia eta Mexikoko jantzak ikusteko aukerea egongo da Areatzan.

KTF Radha Sarisha folklore taldea

KTF Radha Sarisha Jakartako Gizarte eta Politika Zientzien unibersidadeko taldea da. Indonesiako tradizio folklorikoa, Indonesiako Errepublikan bizi diran talde etniko eta erlijioso desbardineta jantzak eta musikak eta bertako herritarrek nazino osoarenak dirala aitortzen daben musikek osotuten dabe. Musika famaduena, perkusinozko instrumentu metaliko moltsoagaz jotzen dan gamelanarena izenekoa da. KTF Radha Sarisha folk taldeak zortzi musikariz osotutako gamelon talde bat da, eta hainbat instrumentu tipiko ditue; metalofonoak, xilofonoak, bateriak eta gong-a, barbarako. Horreei banbuak, txirulak eta kantariak gehitzen jakiez.

Indonesian jantzan egitea, Ekialdeko arte eszeniko gehienak lez, erlijino kultu moduko bat da. Gaur egun, jantza modernoaren eraginez, antxinako tradizioak, drama

eta arte akademietan eta jantza eskoletan, konserbetan dira.

Folkloriko Viva Chihuahua taldea

Folkloriko Viva Chihuahua 2004an jaio zan Ciudad Juarez (Chihuahua, Mexiko), Adrian De la rosa irakaslearen zuzendaritzapean. Hasikeratik kalidade handiko ikuskizunak aurkeztu izan dauz eta herriko, estaduko eta nazinoarteko hainbat antzokitan eskaini ditu emonaldiak.

Sortu zanetik hurrengo 18 urteetan, Folkloriko Viva Chihuahua bere arte eszenikoa Mexikoko errepublikako hainbat estadutan zehar eroan dau: Nuevo León, Querétaro, Guanajuato, Sonido eta Michoacán zehar, hain zuzen be eta 2022an, Mexikoko artea eta kultura erakusteko aukerea izan eban European. Espainian, Lorca, Jaen, Dos hermanas, Badajoz eta Kanaria Handiko jantza eta musika jaialdietan egon zan.

Aurten, Galdakaoko Andra Mari taldeak ekarriko dau Euskal Herrira eta Folklore Bizian jaial-

dian hartuko dau parte.

Galdakaoko Andra Mari

1955 urtean, Galdakaoko hainbat gaztek Andra Mari Eusko Dantzari taldea sortu eben eta urte gixitan Euskal Herriko mundu kulturalean lekua egin eta ondo zuzartu zan. Taldearen helburua, euskal jantzen ondarea bildu eta gizarteratzea da. Hori dala-ta, sano errepertorio zabala daukie; Altsasuko inauteriak, Luzaideko jantzak, Bizkaiko erromeria, Zuberoako eta Gipuzkoako jantzak eta Lizarrako Larrain jantzea, beste batzuen artean.

Ikerketa eta dokumentazioan oinarritutako jantzak eta emonaldiak eskaintzen ditue. "Gure aurrekoen jantza, musika eta errituak jaso, forma tradizionalak mantenduz, estiloa landu, koreografia zaindu eta jantzen izaerea gizarteratzen dogu" dinoe taldekoek.

Sei hamarkada honeetan atzerriko hainbat jaialditan hartu dabe parte Galdakaokoek; Belgika, Alemania, Erresuma Batuan edo Montrealen, barbarako.



ANTZERKIA

Kale antzerkia dakar Hortzmuga Teatroak Igorrera hilaren 21ean

Erredakzioa

Igorreko Uda Kultureko ekin-tzen artean, garagarilaren 21ean, barikua, 20:00etan, ikusi ahal izango da *Agurea, urpekaria eta itsasoa* antzezlan, Goiko Plazako frontoian. Konpainiakoeak, "funtsean gizatiarragoak izateko" ikuskizun moduan definituten dabe lan hau.

Antzezlan, "ikasketa persona-

lean eta tolerantzian oinarritutako abentura da, familia osoarentzat eta umorez josia. Bigarren auke-rei, itsasorako hondakin isurketei eta adinbakoek sare sozialetan daukien esposizino arriskutsuari buruzko istorioa da".

Aroa Blanco, Iñaki Aguinaga eta Alex Antunezek egiten dabez akto-re lanak, Izpiñe Soto eta Mar Garcia Serranoren zuzendaritzapean.

Sinopsia

Itsasoak alkar ezetuten ez daben persona bi alkartuko ditu, izen bako leku baten. Zer esan ez dakiela, alkar lagunduten eta euren buruak erreskatetan ikasiko dabe.

Ulises Agureak, urteak daroaz itsasoan isuritako hondakin guztiak biltzen, ulertzen ez dauan zibilizazio konsumista eta suntsizaitetik urrun eta objektu honeei bigarren bizitza bat emoten. Felix Urpekaria, itsasoko erronka zentzubakoek gauzatzeagaitik ezaguna da sare sozialetan eta ez da mobikorraren pantailatik harago ikusteko gai.

BIDEOA

Arratiako Musika Eskolako ikasleek egindako bideoklipa ikusi daiteke Youtuben

Erredakzioa

Arratiako eta Elorriko musika eskolek alkarlanean Unidad Alavesa taldearen *Su eman* abestiaren bideoklipa egin dabe eta <https://youtu.be/kvmljypYPGY> estekan ikusi daiteke.

Ikasleek aukeratu eben kantua eta irakasleek moldatuta, ekoizpen profesional bat izango balitz moduan grabau dabe. "Egitasmo honen bitartez erronka barria eskaini gura izan deutsegu gure ikasleei, urteetan egindako ekitaldiez harago esperientzia barriak bizi dagiezan.

Honen bitartez ikasi dabe, alde

batetik, estudioan soinua zelan erregistretan dan eta bestetik, bideoklip bat zelan grabetan dan" azaldu deutso BEGITUri Gaizka Peñafiel musika eskolako irakasle eta proiektuaren arduradunak.

Proiektuan 12 eta 20 urte bitarteko 60 bat ikaslek hartu dabe parte eta 15 musika tresna baino gehiagoren soinua bildu dabe bertan; tartean, trikitiea, gitarrea, txistua, biolontxelo, txalapartea, pianoa edo txirulea.

Soinua Bilboko Balea estudioan grabau eben apirlean eta bideoklipa, maiatza eta bagilean zehar Arratian, Otxandion eta Elorrioren.

AREATZA UDAN

Bainuetxe ondoko landan ikuskizunak eta kontzertuak egongo dira udan

Emakumea eta lurraldea zikloko kontzertu bi eta ikuskizunak egongo dira garagarriean.

Erredakzioa

Areatza Udan ekimenak, etxetik eroandako afariagaz, aire zabalean musikea eta antzerkiagaz disfrutetako aukerea dakar, garagarriean bitan.

Hilaren 6an, 20:00etan, Ganso & Cia clown konpainiak *Panoli kabareta* ikuskizuna eskainiko dau bainuetxe ondoko landan. Jenteak etxetik eroandakoa afaldu eta ostean, 22:00etan, Vulcanizadas taldearen kontzertua egongo da.

Vulcanizadas blues eta soul musikea egiten dauan ibilbide luzeko musikariak osotutako talde barria da. Izaskun Simón Zardoyak (saxofoi altua), Nerea Arrieta Ibañezek (Keys eta ahotsa), Elsa Garcia Lizundiak (saxofoi tenorra), Virginia Fernandez Reviriegok (perkusinoa eta ahotsa) eta Jone Ibarretxe de la Cal-ek (bajua eta ahotsa) osotuten dabe taldea. Taldeak euren musikea konposatzen urtebete emon ostean, 2023an, disko bat kaleratzeko asmoa dauka.

Izarren hartza

Garagarriaren 27an, 20:00etan, Teatro Panta Rhei konpainiaren *Izarren hartza* ikuskizuna ikusi ahal izango da bainuetxe ondoko landan. Ostean, etxetik eroandakoa afaldu eta Madrileko Faneka taldearen kontzertua egongo da.

Ezin aproposagoa dirudi Teatro Panta Rheiren emankizunak, udako iluntze baten landa baten ikusteko. Izan be, taldea, Antzerkia Naturaren Ispilua proiektua dabil gauzatzen; natura guneakaz

lotutako kultura esperientzien proiektua, hain zuzen be. *Izarren hartza* familiantzako eta 5 urtetik gorako umeentzako antzezlanada, natura eta bizitza goraiatzan dauana.

Afalostean, Emakumea eta lurraldea zikloko kontzertua egongo da Faneka taldearen eskutik. Gitarra, txelo, bibolin eta perkusino jotzaile laukotea da Faneka eta bere musikea "gordin, urtsu eta magiko" lez definituten dabe.



DUNBA

DBH 4ko Agur jaia

Aurten, DBH 4ko ikasle batzuei, 4. mailan Agur jaia antolatutea bururatu jakien. Irakasleek eta zuzendaritzakoek onartu eben idea, eta ikasleok asko poztu ginan.

Enara Gallastegi Barrenetxea

Oin arte 2. Batxilergoa amaitzean bakarrik egiten zan agurra, baina ikasle batzuek DBH egin ondoren Arratiako Institutua ixten dabe, eta hortaz, ez dabe Agur jaiaren parte hartzeako aukerarik izaten. Horregaitik antolatu dogu, aurten, 4. mailako ikasleok Agur jaia, "Batera hasi ginen ta batera akabaukogu" lelopean.

Bagilaren 16an egitea pentsau genduan, Lasarte Aretoan, orduan ideak botaten eta guztiari formea emoten hasi ginan. Diplomak prestatu genduzan ikasle bako-

txarentzat, kartelak egin genduzan institututik ipinteko, eta sarrerak egin genduzan ikasle bakotzak konbidauak ekarteko. Hasieran idea txiki bat zana, eguna hurre-ratu ahala formea hartzean joan zan, eta kostata baina jaialdi osoa prestatzea lortu genduan. Danok oso emozionauta gengoan Agur jaiaren eguna ailegetako.

Heldu zan eguna eta institutuko bigarren pisutik hasita, trikitiea eta panderoaren laguntzegaz, Kultur Etxeraino joan ginan kalejiran, giro ederrean. Guztiok sartu eta jesarri ginanean, bertso bat egotzeko asmoa dauka.

jaialdiari. Ondoren, aurkezleak sartu ziran eta publiko guztia barreka, abesten eta jantzan ipintea lortu eben, DBH-n pasatuko urteen laburpena eta aurtengo irakasleen aitamena modu ezin dibertigarriago baten eginaz. Euren txiste eta abestiakaz ikusleak alaitu eta gero, entzunaldi akustikoaren txandea izan zan. Hiru ikaslek gitarraz abesti bat jo eta

abestu eben, euren talentuagaz guztiok aho zabalik itxita.

Horren ondoren 4. mailako tutore guztiak oholtzara igon ziran, bidean musikeagaz eserlekuen arteko pasillotik pasarelea egin ondoren, bakotzak bere ikasleei diplomea emoteko. Mikrofonotik banan-banan izenak esan eta txalo artean oholtzara igon ginan, eta gela bakotzak amaitu ondoren,



taldeko argazkia atera genduan. Diplomak jaso ostean, amaierako diskurso bat bota eben, lau urte honeetako momentuak eta anekdotak gogoratu arazoz. Amaitzeko, DBH 4ko ikasle guztiak igon ginan, *Heldu da garaia* abestia guztiok batera abesten.

Egun oso polita izan zan, barre asko egin genduan, eta emozionau be egin ginan. Gainera datorren urtean Lanbide Heziketa egingo dabeneke edo beste lekuren batera joango diranek be merezidu eben agurra izan eben. Hortaz, ea DBHko agurra tradizio bihurtzen dan eta datozen urteetan be honegaz jarraitzen daben.

AGENDEA

**GARAGARRILAK 3
ARANTZAZU**

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura Udak Liburutegia zabalik.

AREATZA

Ikasgela zabalik. Aste barruan 08:00retatik 21:00etara eta astegoienetan, 09:00etatik 21:00etara.

Jaietako Kartel Lehiaketeta. Lanak hilaren 14ko 14:00ak arte aurkeztu daitezke udaletxean.

Uda osoan zehar, Areatza eta herriko eraikinak ezetu Parketxean dagozan audiogidak erabiltza.

Garagarril eta abuztu osoan zehar, Vicente Guinea argazkilararen *Animarbolak*, *irudimenari irekitako erakusketa* argazki erakusketea Parketxean.

18:00etatik 20:00etara, Uparan Jubilatuta eta Pentsiodunen alkarteak antolatutako hilaren 14ko Hondarribiara txangorako izen-emotea jubilatuen lokalean.

BEDIA

Ikasgelaren zerbitzua Bete-beteka ikasgelan. Astelehenetik barikura 09:00etatik 16:00etara eta 19:30etik 21:30era; zapatu eta domeketan, 09:00etatik 21:00etara. Izena emoteko eta erreserba egiteko 16:30etik 19:30era liburutegian. Txartela (giltza) personalizaua egongo da eta liburutegian jasoko da.

Garagarrilaren 7ra arte, Udak antolatutako Txiki Txokoa eta Udaleku irekiak.

Garagarrilaren 14ra arte, Liburutegian udako ordutegia: 10:00etatik 13:00etara.

DIMA

Hilaren 9ra arte Lamindaoko madalenak jaietako bazkarirako txartelak salgai Dimako Baltzola tabernan eta Areatzako Hagina eta The Qui Corner tabernetan.

IGORRE

Garagarril osoan, liburutegia zabalik 09:00etatik 13:30era arte.

08:00etatik 22:00etara ikasgela zabalik. Aurretik Kultur Etxera deitu behar da zitea eskatzeko 94 673 62 51 telefonoan.

17:30etik 20:00etara, garagarrilaren 28ra arte, "Herrian jolasean" Zaztaparrak taldearen eskutik udalekuetako landan.

Garagarrilaren 28ra arte, udalekuak.

LEMOA

08:00retatik 21:00etara, astelehenetik domekara Kotxepineko ikasgela zabalik.

Liburutegia 11:00etatik 14:00etara zabalik.

ZEANURI

Hilaren 22an eta 23an izango dan herriko mugetatik ibilaldian izen-emotea zabalik udaletxean hilaren 7ra arte. Kultur Batzordeak, Joko Alaik eta Udak antolatuta.

Batxiler eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00retatik gaueko 21:00ak arte zabalik egunero. DBHko ikasleentzat, astelehenetik egunera 17:00etatik 19:00etara.

Hilaren 18ra arte, garagarrilaren

22ko Ipiñaburuko auzo bazkarian izena emoteko epea 628 619 040 telefonoan.

Garagarrilaren 12ra arte, auzo zabalik lanak jaietako Kartel Lehiaketarako, *harrera@zeanuri.eus* helbidean edo udaletxean.

ZEBERIO

11:00etatik 13:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

Hilaren 28ra arte aurkeztu daitezke kartelak jaietako Kartel Lehiaketarako udaletxean.

**GARAGARRILAK 4
AREATZA**

18:00etatik 20:00etara, Uparan Jubilatuta eta Pentsiodunen alkarteak antolatutako hilaren 14ko Hondarribiara txangorako izen-emotea jubilatuen lokalean.

19:30ean, Jai Batzordearen batzarra. Udaletxean.

**GARAGARRILAK 5
AREATZA**

18:00etatik 20:00etara, Uparan Jubilatuta eta Pentsiodunen alkarteak antolatutako hilaren 14ko Hondarribiara txangorako izen-emotea jubilatuen lokalean.

ZEANURI

08:15ean, Gorbeia Jubilatuen eta Pentsiodunen alkarteak antolatuta, Arnedora txangoa.

19:00etan, jaiak antolatzeko batzar zabalik. Pleno aretoan.

**GARAGARRILAK 6
AREATZA**

20:00etan, Ganso & Cia-ren *Panoli kabareta* antzerki ikuskizuna; etxetik eroandako afaria; 22:00etan, Vulcanizadas taldearen kontzertua. Emakumea eta Lurralde eta Areatza Udan programearen barruan. Bainuetxe ondoko landan.

**Swing jantzan egiten ikasteko ikastaroa Lemoan**

Bilboko Little Harlem eskolearen eskutik, garagarrilaren 7an, 19:00etan, swing ikastaroa eta jantza soziala egongo dira Kotxepin Kultur Etxean. Aldez aurretik emon behar da izena www.lemoa.net webgunean.

Little Harlem Bilboko eskolea swing jantzan espezializautako lehenengo jantza eskolea da, jazz musika eta swing jantza zaleentzat sortutakoa. Eskola honen helburua, "1930 eta 1940ko hamarkadetan sortuta eta hazten eta garatzen jarraitzen daben jantza afroamerikar honeen espiritua" jenteari heldu arazotea da. Lindy Hop, Collegiate Shag eta Solo Jazz-eko klaseak emoten dabez eta big band-en sasoioko beste estiloetako jantza tailerrak be emoten dabez.

**GARAGARRILAK 7
IGORRE**

San Kristobaleko jaiak. 21:00etan, Igorreko lehengo kanten kantaldia Ander Gorospereen eskutik. Ostean, Vinagre de Moderna taldearen kontzertua.

**GARAGARRILAK 8
BEDIA**

Eleizalde Bediako Jubilatuta eta Pentsiodunen alkarteak antolatutako urtekera Frias-Oñara.

Hilaren 14ra arte, Bediako Uda Gaztea bidaia.

IGORRE

San Kristobal jaiak. 10:00etan, txirrindulari lasterketea; Bizkaiko Kopako Jubeniil mailako lasterketea Igorretik urtenda; 11:30ean, Paella Txapelketarako izen-emotea; 12:00etan, txirrindulari lasterketearen amaiera; 13:00etan, Igel Txapelketea; 14:30ean, paellak aurkeztu; 17:30ean, Tortilla Txapelketarako izen-emotea; 20:00etan, tortillak aurkeztu; 21:00etan, Arantzarte eta Tenerifeko Agrupacion Folklorica Guarache jantza taldeen emonaldia; 23:30ean, Akerbeltzegaz erromeria eta ostean Dj Buzz.

LEMOA

18:00etan, Bizkaiko Ardi Txakur Txapelketea Elizondan.

**GARAGARRILAK 9
LEMOA**

Hilaren 27ra arte, 17 urtetik gorakoentzako herritar guztientzako Futbito Txapelketea.

**GARAGARRILAK 10
BEDIA**

Hilaren 21era arte, Udako Ludoteka Ludosport.

IGORRE

San Kristobaleko jaiak. 12:00etan,

mezea San Kristobalen eta ostean, barauskarria.

**GARAGARRILAK 13
LEMOA**

09:15ean, Lemoatx Jubilatuta eta Pentsiodunen alkarteak antolatuta Elantxobera txangoa. Tallerretatik urtenda.

**GARAGARRILAK 14
AREATZA**

08:30ean, Uparan jubilatuta eta Pentsiodunen alkarteak antolatutako txangoa Hondarribiara; 11:00etan, Txingudiko badiak katamaran ibilaldia; 14:30ean, bazkaria Hondarribian.

BEDIA

Liburutegiaren zerbitzua zarratzen da urri lehenengoaren 5era arte.

**GARAGARRILAK 15
AREATZA**

20:00etan, Xahu jazz taldearen kontzertua The Quiet Corner tabernan.

BEDIA

Hilaren 29ra arte, Coopera bidaia Senegalera.

LEMOA

Tallerreta eta Lemoretako jaiak. 12:00etan, txupinazoa Atutxen eta kalejirea auzotik; 15:00etan, bazkaria Cementoseko etxeetan; 17:30ean, kontzertua; 21:00etan, dj-a Bikandi tabernan. Amaitzeko, oilaskoak erre.

**GARAGARRILAK 16
ARTEA**

Jaiak santamañen. Mezea; ostean, barauskarria. Goizean zehar Paella Txapelketea; 14:00etan, sari banaketeta.

**GARAGARRILAK 21
IGORRE**

20:00etan, Hortz mugua teatroaren *Agurea*, *urpekaria* eta *itsasoa* Goiko Plazan.

**GARAGARRILAK 22
AREATZA**

20:00etan, Tobacco Road taldearen kontzertua The Quiet Corner tabernan.

DIMA

Lamindaoko jaiak. 10:00etan, igoera eleizatik Ilunbera, bertan ikurriña aldaketeta; 12:00etan, mezea, ostean barauskarria; 15:00etan, auzo bazkaria; 16:30ean, Ardoa Barrura txarangea; 18:30ean, herri kirolak; 20:00etan txokolata.

LEMOA

Hilaren 25era arte, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, mendi urtekera erdikaldeko Pirinioetara. Orba (1.244 m), Gran Astazou (3.071 m) eta Pico de l'Ibonet (2.866 m).

UBIDE

Madalena Jaiak. Mezea, Tortilla Txapelketea eta erakustaldia: kotxe bat azkoreagaz moztutea.

ZEANURI

Zeanuriko mugetatik egun biko ibilaldia. 25 kilometro egunean.

Santiago jaiak Ipiñaburur. 12:00etan, jai hasierako txupina; 14:00etan, auzo bazkaria eta bazkalostean animazioa.

**GARAGARRILAK 24
AREATZA**

20:30ean, Folklore Bizian. Galdakaoko Andra Mari Eusko Dantzari Taldearen, Indonesiako KTF Radha Sarisha talde folklorikoaren eta Mexikoko Viva Chihuahua talde folklorikoaren jantza erakustaldia plazan.

**GARAGARRILAK 25
ARTEA**

10:30ean, mezea, ostean barauskarria. Goizean zehar Marmitako Txapelketea; 14:00etan, sari banaketeta.

ZEANURI

Ipiñaburuko jaiak. 12:00etan, mezea eta ostean barauskarria herriko txistulariek girotuta; 17:00etan, umeentzako jolasak; 17:00etan, Mus eta Briska txapelketak; arrastian zehar bola-jokoa; 19:00etan, txokolata.

**GARAGARRILAK 27
AREATZA**

20:00etan, Teatro Phanta Rhei Antzerkiaren *Izarren hirtza* ikuskizuna; etxetik eroandako afaria; 22:00etan, Faneka taldearen kontzertua. Emakumea eta Lurralde eta Areatza Udan programearen barruan Bainuetxe ondoko landan.

**LEMOA**

Hilaren 31ra arte Lemoako jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

**GARAGARRILAK 30
AREATZA**

13:30ean, rock & roll, dj O'Ganji. The Quiet Corner tabernan.

**GARAGARRILAK 31
ARANTZAZU**

Liburutegia zarratuta abuztuaren 15era arte.



GORBEIALDE

LANDA GARAPENA

ARRATIA, UBIDE ETA ZEBERIOKO
GARAPENEAN LAGUNTZEN

KOMIKIA

Kailo Ren



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

GARAJEA ALOKATZEN DOT

Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean. Telefonoa: 94 631 60 22.

LONJEA ALOKATZEN DOT

Igorreko Olabari auzoan dagoan lonja bat alokatzen dot kontratupean. Informazioa, 647 239 449 telefonoan.

BULEGOA ALOKATZEN DOT

Arrigorriagako erdigunean, horniduta eta lan egiteko prest dagoan bulegoa (45 m²) alokairuan. Kudeaketa, aholkularitza, aseguruak, eta abarrentzako aproposa. Prezioa: 450 euro. Telefonoa 665 709 651.

SALTZEAN DOT

Dimyos markako bizikleta eliptikoa eta animaliek alde ez egiteko hezi elektriko ikusezina, transmisorea eta lepokoa saltzean dodaz. Interesdunek deitu: 661 273 192.

BIZIKLETEA SALGAI

Cube AMS bizikletea salgai, 2021ekoa, Arrabiken erositakoa. Informazio gehiago 615 760 707 telefonoan (Aritz).

LANA

PSIKOLOGIA ZENTROA ESKUALDATZEN DA

Igorreko San Juan auzunean, baimen

guztiakaz eta jardun betean. Interesdunek deitu 600 634 272 (Sagrario) telefonora.

TABERNARI BILA

Axular Herriko Tabernari lan egiteko tabernari euskaldun bat behar da. Interesdunek tabernari galdetu edo axularke@gmail.com helbidera idatzi.

GITARRA KLASEAK EMOTEN DODAZ

Hari's Rosk School. Gitarra klase personalizatuak emoten dodaz adin guztietarako. Igorreko Kiñu Gaztetxean. Interesdunek deitu: 664 303 528.

KLASEAK EMOTEN DODAZ

Piano klase partikularak emoten dodaz Areatzan (maila guztiak), umeentzat zein helduentzat. 629 461 077.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa



Zenbaki honetako saridunak:

1 Areatza Musik & Brewing Musika eta Kultura Elkarteak emondako 2023ko kamiseta bana.

Arantza Etxebarria (Bilbo)
Txaro Tornero (Dima)



2 Kristonak taldeak emondako materiala.

Amaia Astondoa (Areatza)
Galder Olibares (Igorre)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 21 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel.: 94 631 73 65 - VILLARO

NAIARA Hartz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

BIZARGINAK
«Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu»
«Baxarra egin eta bukunduten dogu»
Tel. 94 607 78 33
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

KIRRU ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

Dia % PEDRO AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

Jose Luis Corbacho pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tel.: 94-673-70-87
Tel.: 609-79-40-54

ZEKUTZE JATETXEA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83
zikutzejatetza@hotmail.com

begitu
eus

IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN!

Informazioa: **649 979 115**
eta inigoirua@begitu.eus

begitu 20 urte

BAIETZ 30 LAGUN BARRI EGIN!

2023AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz. Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko.

Horretarako **2023an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarte Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____
 Helbidea: _____
 Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____
 Kontu korrontearen zenbakia: ES _____
 Aukeratu urteko kuotea: 35€ 55€ 75€

*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

begitu.eus

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.